



Gabirel Jauregi
Batxilergorako materialak

Marx-en filosofia

Damián Pedrosa



Euskara Zerbitzua
Ikasmaterialak

Gabriel Jauregi Bilduma
Batxilergorako materialak

19

Marxen filosofia

Damián Pedrosa



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

ARGITARATUTAKO IZENBURUAK

1. Arte klasikoa. Grezia eta Erroma
2. Mikroekonomiaren oinarriak
3. Energia baliabideak
4. Arte marrazketa I
5. Oinarrizko mekanika: mugimenduen transmisioa, makina arruntak eta ariketa praktikokoak
6. Sexismoa maitagarrien ipuinetan
7. Filosofiaren historia
8. XIX. eta XX. mendeetako gizarte filosofia: liberalismoa, marxismoa eta komunismoa
9. Motorrak
10. Logika sinbolikoa
11. Ekonomia eta enpresen antolaketa: Ekonomia-politika; merkataritza saila eta marketina
12. Bolumena
13. Filosofia: 5 filosofo
14. Etorkinak eta esplotazioa; kulturantzatasuna eta integrazioa
15. Euskal artea aztergai
16. Egipto zaharra
17. Descartes era arrazoi modernoa
18. Geometria deskribatzailea. Ariketak
19. Marxen filosofia

Argitaraldia: 1.a, 2009ko urria

Ale-kopurua: 500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Damián Pedrosa

Fotokonposizioa: mccgraphics

Inprimaketa: mccgraphics

ISBN: 978-84-457-3009-6

L.G. BI-2625/09

AURKIBIDEA

1. GARAIA	5
1.1. Bizitza	7
1.1.1. Marxen idatziak.....	8
1.2. Testuinguru sozio-historikoa.....	8
1.2.1. Industria Iraultzako langileen egoera. Lehenengo matxinadak eta lehenengo langile-elkarteak	9
1.2.2. Testuinguruaren eragina Marxen pentsaeran	11
2. PENTSAERA	13
2.1. Errealitatearen ikuskera dialektikoa	15
2.1.1. Dialektika Hegelen teorian.....	15
2.1.2. Materialismo dialektikoa.....	16
2.2. Alienazioa	17
2.2.1. Lanaren alienazioa	18
2.2.2. Alienazio ideologikoa	19
2.2.2.1. Estatuan agertzen den alienazioa	20
2.2.2.2. Alienazio erlijiosoa	21
2.2.2.3. Alienazio filosofikoa	22
2.3. Materialismo historikoa	22
2.3.1. Materialismo.....	22
2.3.2. Materialismoa historian.....	23
2.3.3. Gizartearen antolakuntza materiala (ekonomikoa)	23
2.3.3.1. Produkzio moduak	24
2.3.4. Gizarte-aldaketa: iraultza	27
3. TESTUA	29
3.1. Testuaren egokitasuna	31
3.1.1. Testuari buruzko galderak	39
3.1.2. Testuaren tesi batzuk	39
4. IRUZKIN KRITIKOA	41

Garaia

1

1.1. BIZITZA

Karl Marx 1818an Treverisen —Renanian, Bonnetik gertu— jaio zen. Errabino juduen iloba eta biloba, abokatu izateko protestante bihurtu behar izan zuen. Bonnen zuzenbidea ikasten hasi, eta Berlingo unibertsitatean jarraitu zuen, non Hegelen pentsamendua ikasleen eta ideien giroan jaun eta jabe baitzen. Marxek ideia berrien erakarpena aurki nabaritu zuen, eta gazte hegeliar ezkerrekoekin jarri zen harremanetan.

Hor sortu zitzaion Marxi filosofiarekiko interesa. 1841ean, filosofia arloan, *Demokritoren eta Epikuroren naturari buruzko filosofiaren arteko aldea* doktore-tesia idatzi zuen.

1842-1848 bitartean **gai filosofiko** eta **ekonomikoak** ikertu zituen.

Aldizkari Renaniarra izeneko egunkarian kazetari-lanari ekin zion. Han, gizarte-arazo errealei buruz idatzi eta hausnartu zuen. Artikuluen ildo kritikoak zirela eta, gobernuak zentsuratu egin zizkion, eta ondoren, baita aldizkaria itxi ere.

Ezkonberritan, lanik gabe, Parisa joan zen. Han, garaiko teoriak aztertzen eta kritikatzin aritu zen; esaterako, Proudhonen pentsaera ekonomikoa; Fourier, Owen eta Saint-Simonen sozialismo «utopikoa»; Feuerbachen materialismoa eta Hegelen idealismoa.

Parisen zegoela, Engels ezagutu zuen, eta langileen egoeraz kezkatua zegoenez, Engels ere Marxen adiskide eta bizi arteko laguntzaile izan zen.

1845ean, Prusiako gobernuak beharturik, alde egin behar izan zuen Paristik Bruselara. Han, filosofiaren eta politika ekonomikoaren ikerketekin jarraituz, Engelsekin batera *Ideologia alemaniarra* eta *Alderdi komunistaren manifestua* idatzi zituen.

1848tik aurrera **materialismo historiko** eta **dialektikoaren** teoria eta **langileen iraultza** dira Marxek aztertu eta landu zituen gaiak.

Langile-mugimenduaren antolaketan sartuta zegoelako, Bruselatik kanporatzeko agindua eman zioten, eta 1848ko otsaileko iraultzarekin Parisera bueltatu zen. Gero, Koloniara eta Vienara joan zen, Liga Komunistako kide gisa.

Iraultzaren kontrako erreakzioak zirela medio, berriro erbesteratu zuten eta, hurrengo urte-tik aurrera (1849-1883), Londresen bizi izan zen, Engelsen laguntza ekonomikoari esker. Hiri horretan —kapitalismo berriaren ispilu— langileen pobrezia eta bizi-baldintza txarrak aurrez aurre aurkitu zituen.

1866an, *Kapitala* (1. zatia) —bere libururik inportanteena— kaleratu zuen. Engelsek 2. (1885) eta 3. zatiak (1894) argitaratu zituen. Azken horiek Marx hil ondoren.

Langileen Nazioarteko Elkartearen (I. Internazionale) antolatzaile bilakaturik, etenik gabeko jardunean bizi izan zen. 1871n Parisko Komunaren alde ahalegin guztiak egin zituen, eta aldi berean, anarkismoaren —batez ere Bakuninen— teoriatik aldendu egin zen.

Nietzscheck *Horrela hitz egin zuen Zaratustrak* idatzi zuen urte berean, 1883an, hil zen Marx Londresen.

Marxen lanak garaiko eta hurrengo urteetako gizarte-bizitzaren alderdi guztietan eragin itzela izan zuen. Eragin horrek pentsatzaileen gailurrera igo zuen Marx. Filosofia, ekonomia eta hizkuntza bera ere, oro har, Marxen lan intelektualaren zordunak izango dira.

1.1.1. Marxen idatziak

Eta haiekin lotzen diren gertakariak eta beste pentsalarien argitalpen batzuk:

- 1818: Marx Treverisen, Alemanian, jaio zen.
- 1820: Engels, Marxen adiskide eta lankidea, jaio zen.
- 1831: Hegel Alemanian hil zen.
- 1841: Feuerbachek *Kristautasunaren esentzia* argitaratu zuen.
- 1843: *Zuzenbidearen filosofia hegeliarren kritika*.
- 1844: *Eskuizkribuak. Ekonomia eta filosofia*. Engelsekiko adiskidantza.
- 1845: Engelsek *Langileen egoera Ingalaterran* argitaratu zuen.
- 1846: *Ideologia alemaniarra*.
- 1848: *Alderdi komunistaren manifestua*.
- 1859: *Ekonomia politikaren kritikari ekarpena*.
- 1859: Darwinek *Espezieen jatorria* argitaratu zuen.
- 1866: *Kapitala* (1. zatia).
- 1871: Parisko Komuna. Bakuninek *Jainkoa eta Estatua* argitaratu zuen.
- 1883: Marx hil zen Londresen.
- 1883: Nietzschek *Horrela hitz egin zuen Zaratustrak* argitaratu zuen.
- 1885: *Kapitala* (2. zatia), Engelsek argitaratuta.
- 1894: *Kapitala* (3. zatia), Engelsek argitaratuta.
- 1895: Engels hil zen.

1.2. TESTUINGURU SOZIO-HISTORIKOA

XIX. mendearen erdialdean etorri zen Industria Iraultzarekin batera iritsi zen heldutasunera Marxen pentsaera, alegia, Ingalaterran gertatu zen lurrun-makinaren asmatetarekin eta nekazaritzan, ehungintzan, meatzaritzan eta komunikazioan izan ziren aurrerakuntzekin batera.

Aldaketa horiek zirela eta, orduko gizartearen egituraketan hiru klase bereizi ziren. **Burgesia** izan zen gizarte feudaletik gizarte kapitalistara iragateko bultzada eman zuen gizarte-klase eraginkorra. Burgesiaren botere ekonomikoa hazten joan zen neurrian, **noblezia**-gandik askatuz joan zen. Noblezia Antzinako Erregimenaren oinordekoa zen, eta lur sail handien jabe. Azken batean, bi klase horiek (burgesiak eta nobleziak) bat egin zuten **proletarioen** aurrean. Langileria, nekazari-giroko gose eta beharretik ihesi, lantegien mundura joan zen bizibide hobearen bila, nahiz eta hor esplotazio-egoera latza aurkitu zuten: soldata eskasak eta lan-baldintza gogorak. Eta halaxe, XIX. mendean gauzatu zen banaketa horretan, burgesiaren eta proletarioen artekoan, oinarritu zen gerora gizarte industrialaren egituraketaren oinarrian egon zen klase-zatiketa.

1.2.1. Industria iraultzako langileen egoera. lehenengo matxinadak eta lehenengo langile elkarteak

XVIII. Mendea

Ingalaterran gertatu ziren industria modernoaren lehenengo asmakizun teknologikoak. Horregatik, XVIII. mendearen erdia ezkererako, «*ehungailuek berez ehuntzen dutela*» esan daiteke. Izan ere, energia-iturria aldatuz joan zen, eta, hasieran energia horren sorburu andre-gizonak izan baziren ere, animaliak etxekotu zituztenean, horien lana hasi ziren erabiltzen energia sortzeko. Ondoren, gurpil hidraulikoaren bidez, eta **1764ean**, **lurrun-makinari** esker lortu zen energia.

Ehundegiak erreka ondoan egon beharrik gabe, meategien ondoetan eta hirietan kokatu ziren, eta, ondorioz, **hiri industrialak** sortu ziren. Hiri horietara, nekazari-giroko langabe ugari gerturatu zen, eta horrek **soldata merkeak** eskaintzeko aukera eman zien nagusiei. Hori dela eta, sendietako kide guztiek bilatu behar izan zuten lana, askotan egunean 16 orduko lanaldietan.

Langileen egoera gogorra zela medio, **matxinadak** hasi ziren «hautsi makinak» lemapean; bazirudien makinak zirela errudun. Matxinada horien aitzakian, **lege zapaltzaileak** ezarri zituzten agintariak.

Frantziara geroago iritsi zen lurrun-makinaren iraultza teknologikoa. Aurrerapen hori heldu bitartean, 1789ko iraultzak berdintasuna, demokrazia eta era horretako lorpenak aldarrikatuz, aldaketa handiak eragin zituen, baina berehala etorri ziren mugaketa politikoak. **1791n**, **elkartzeko eskubidea indargabetu zuten**, eta **1795ean**, **greba egiteko eskubidea**.

Azaldutako egoera horri aurre egin ziotenen artean, Gracchus Babeuf izan zen aitzindari. Haurtzarotik ezagutu zituen nekazari eta langile behartsuen bizitza. Kartzelaratu egin zuten borroketan parte hartu zuelako. Ez behartsurik, ez aberatsik izango ez zuen gizartearen hastapenak aldarrikatu zituen: «**Berdinen errepublika**». Babeufen ustez «Frantziako Iraultza geroago etorriko den beste iraultza baten aurrekoa besterik ez da: handiagoa, solemneagoa eta azkenekoa». 1793an, Parisen babestu zen eta Robespierren heriotzaren ondoren, iraultza berri bat prestatu zuen, «Berdinen konspirazio» deiturikoa. Iraultza horren helburuak ondasun guztiak guztion eskuetan jartzea, lana guztiontzat eta soldaten berdintasuna izan ziren. Marxen iritziz Babeuf izango zen lehen alderdi komunistaren sortzailea. 1797an atxilotu, eta gillotinatzen hil zuten.

XIX. Mendea

Poliki-poliki ekonomia-sistema eta gizarte-sistema berria agertzen joan ziren Mendebaldeko munduan: kapitalismoa; eta horrekin egitura feudal zaharrak desagertuz zihozten. Hiriak hazi eta indarra hartzen zuten heinean, nekazaritza indarra galtzen joan zen. Jendea pilatzen ari zen baztertuen auzuneetan; **klase berri bat** sortu eta sendotu egin zen: **proletarioak**.

Pixkanaka, sistema berriak beharrezkoa izan zuen langileen artean espezializazioa zabaltzea, produkzio-moduak gero eta konplexuagoak bihurtzen ari baitziren. Horrekin

batera, lanerako menpekotasun-harremanak beharrezkoak ziren, bai lana lortzeko, bai lanean irauteko.

Asmaketa berriak izan ziren industrian: **edozerarako makinak nonahi**. Baina aurrerakuntza horrek ez zituen lan-baldintzak hobetzen. Lanerako baldintza txarrak zirela eta, gero eta jende gehiago elkartu zen, bereziki lantegi handietan, eta emakumeek, gizonek eta umeek **langileria** osatu zuten.

Hori zela eta, hainbat lege atera ziren **jendearen jarduna kontrolatzeko**. 1803an, nortasun-txartela ezarriko zaie langileei; txartel horretan izena, adina, jaioterria, lantokia, zehaztu behar ziren; gainera, zigor gogorrak ezarri zitzaizkien **arrote-bizimodua** hartzen zutenei.

1810ean, Napoleonen Kodeak 2-5 urte arteko kartzela-zigorra ezarri zien grebak egiteko elkartzan ziren langileei. Gobernariak, era horretan, bat egin zuten nagusiekin langileen eskakereen aurrean. Lege horiek guztiek, dena dela, ez zuten eragotzi langileen antolamendua, eta, gatazka askoren ondoren, **1848ko otsaileko iraultza** heldu zen. Garai horretan, Marx *Alderdi komunistaren manifestua* idazten ari zen.

Alemanian, Prusiako erregimenaren menpean, Industria Iraultza iritsi gabe zegoen artean; egoera ia feudalean jarraitzen zuten eta proletarioak oso gutxi ziren. Hala ere, Kanten eta Hegelen izen handien gerizpean, filosofiak indar handia zuen, eta Frantzia gertatzen ari zen pentsamendu-aldaketaren jasotzaile izango zen Alemania. Izan ere, Alemanian sortu ziren hurrengo mendeetan Europako filosofia markatuko zuten joera nagusiak.

Frantziako Iraultzarekin, langile-mugimenduak pentsatu zuen bazetorrela askatasuna, baina amets hori kolokan jarri zen Luis XVI.aren exekuzioarekin eta horrekin batera sortu zen giroarekin. Hegelek bakarrik izan zuen jarrera baikorra: Hegelen ustez, iraultzak Espirituaren lana islatzen zuen, eta arrazoia hedapenaren emaitza izango zen, Europan gertatzen ari ziren asaldura politikoek eta sozialek ideia zaharkituak astintzen baitzituzten.

Ingalaterran, 1830. urterako sortu ziren **langileen erakundeak**. 1834an R. Owenek «Langileen Batasun Handia» (*Trade Unions*) sortu zuen. Horrekin batera **Kartismoa** jaio zen, 6 puntutan oinarritutako eskakizun batzuen aldarrikapena, Lovett langileak idatzitakoa: 1) sufragio unibertsala; 2) errolda desagerraraztea; 3) gutxienez urtean behin egitea parlamentuaren batzarra; 4) immunitate parlamentarioa; 5) botoen zenbaketa sekretua, eta, 6) lurraldea hauteskunde-barruti berdinetan zatitzea. Eskabide politiko horietaz gain, eskaera ekonomikoak ere sartu zituen. Errebindikazio horrek 3 milioi sinadura jaso zituen 1842. urtean.

Engels mugimendu horien guztien lekukoa izan zen, eta, horretaz guztiaz arduratuta, 1845. urtean idatzi zuen *Langileen egoera Ingalaterran*.

Frantzia, 1830ean, borboitarren monarkia erori eta langileen matxinadak, lanuzteak eta lantegien itxierak etorri ziren. 1831n, Lyonen, lantegiak itxi ziren; orduan, langileak hiria hartzeko asmoz matxinatu ziren. Borroka latzak izan ziren *Garderekin*: barrikadak, lubakiak, armak... Langileek alkatea eta jeneral bat atxilotu zituzten.

Langileen matxinada lehen aldiz nagusitu zen, baina gutxi iraun zuen, zeren Paristik 20.000 soldadu bidali baitzituzten Orleansko dukearen agindupean, langileak atxilotzeko, nahiz eta gero askatu behar izan zituzten, manifestaldiak zirela eta.

Lehen aldiz jaso zituzten langileek matxinadaren alde onak, aurreko matxinada guztietan burgesiak atera baitzituen etekinak. Horrela, egoera berri horretan, burgesiaren eta prole-

tarioen arteko gatazkak hartzen du lehentasuna. Ildo horretan, Parisen Babeufen jarraitzaileek elkarte sekretuak sortu zituzten. 1847an, Marx eta Engels horietako elkarte bateko kide izan ziren: Federiko Handiaren gobernuak erbesteratutako alemanek osatzen zuten «Justuen Liga»-koak hain zuzen ere.

Idea komunistak sendotzen zihoazen, langileen aldizkariak zabaltzen; matxinada giroa bizia zen. 1848ko otsailean, Parisen iraultzak eztanda egin zuen: monarkia liberala erori eta II. Errepublika hasi zen.

1.2.2. Testuinguruaren eragina Marxen pentsaeran

1848ko Iraultza Marxen bi lanen oinarri izan zen: *Klaseen arteko borroka Frantzia (1848-50)* eta *Luis Bonaparteren Brumairearen 18a*. Lan horietan Estatuari buruzko bere teoriak azaldu zituen. Eta horien arabera, Estatuaren ezaugarriak honako hauek dira:

- a) Gainegiturako aparatuen multzoa (burokrazia, armada) da.
- b) Klase menperatzailearen —burgesiaren— esku dago.
- c) Produkzio-harremanak sendotzea eta zabaltzea eragingo du.

1871n, iraultzaren bidean, **proletarioek beren esku hartu zuten botere politikoa, Pariseko Komuna** ezarri eta klase nagusi bihurtu ziren. Ekintza historiko horrek Marxi aukera eman zion Estatuari buruzko ikuskera materialista historikoan sakontzeko. Pariseko Komunari izandako esperientziatik ateratako Marxen teoriarik, botere politikoa hartzeak ekarri zuen proletarioen diktadurak ezaugarri hauek ditu:

Demokraziaren jabe izango da.

Burgesia mailaka desagerraraziko du eta, horrekin batera, klase sozialen arteko desberdintasunak ere bai.

Jabetza-eskubidea eta produkzio-harreman burgesak ezereztatuko ditu.

Bestalde, sozialista utopikoek (Fourier, Saint Simon, Owen...) egindako lan-baldintzak aldatzeko proposamenak lekuz kanpokoak ziren Marxen ustez. Halako sozialistek gizarteari buruz egin zuten azterketa eta eskainitako irtenbidea ez zeuden behar bezala oinarrituta, egin beharreko azterketek gizarte kapitalistak sortzen dituen baldintza ekonomikoak era egokian ezagutzera zuzenduta egon behar baitute. Horren aurrean sozialismo zientifikoa aldarrikatu-ko du:

- a) Zientzian oinarrituko da, kapitalismoak eragiten duen egiazko egoera aztertuz.
- b) Garapen dialektikoak erakusten duenaren arabera, langileen iraultzaren bidez, aldaketa aurreikusten du.

Pentsaera

2

2.1. ERREALITATEAREN IKUSKERA DIALEKTIKOA

2.1.1. Dialektika Hegelen teorian

Hegelen ustez, mundua bere osotasunean arrazionala da eta munduaren ezagupenak ere arrazionala izan behar du. Oinarrian, bada, dena izango litzateke arrazoiaren, lege arrazionalen, ondorioa. Bai mundu fisikoa, bai kulturaren mundua, arrazoiaren garapenaren emaitza dira. Hegelen esanetan: «**Arrazionala den oro erreala da eta erreala den oro arrazionala**».

Errealitatean, abiapuntua espiritua (arrazoia) da. Mundua espiritutik, arrazoitik, sortuko da (**idealismoa**); bai mundu fisikoa, bai kulturaren mundua (erlijioa, artea...). Mundua, beraz, bere osotasunean arrazionala da.

Ezagutzeko prozesuan, halaber, abiapuntua espiritua (arrazoia) da; eta ez guregandik kanpo dagoen mundu fisikoan edo kulturalean omen dauden objektuak, **ezta** kanpoan dauden objektu batzuen **ezagupen sentigarria ere**. Horregatik, munduaren bilakaeraren egiazko ezagupena lortu nahi badugu, arrazoiak baliatu beharko dugu, eta ez sentimenez. Nolabait esateagatik, arrazoiakoa dena arrazoiak ezagutuko dugu.

Heraklitoren pentsamendua, alegia, «*errealitatea aurkakoen arteko borroka dela*» onartuz, Hegelen ideia nagusia da **errealitatea dinamikoa** dela eta **kontraesanean dagoela**. Gauzen existentzia mugimenduan, aldaketan, murgilduta gertatzen da, eta ez era estatikoan. Gauzek euren baitan kontraesana daramate, eta kontraesan hori da mugimenduaren eta aldaketaren eragilea, existentziarena, eta, era berean, arrazoi dialektikoaren azalpen bidea.

Eta horretarako, **egiaren tratamendu dialektikoa** defendatzen du. Kontua ez da gaia zer den definitzea behin eta betiko, baizik eta gai bakoitza bere aldaketan, bere mugimenduan ulertzea.

Arrazoiaketa dialektikoaren bi ezaugarriak honako hauek dira:

- a) Ezagupenaren gaia **osotasunari lotuta** ulertu behar da, ez bananduta: zatikako ezagupenaz arduratu beharrean, gaiak eta prozesuak osotasunaren ikuspegitik aztertuko dira. Gai konkretuen ezagupena ez da ezer, ezagutu nahi dena ez bada testuinguru sozialaren harremanetan integratua hartzen.
- b) Bizitzaren produktua den osotasun hori (errealitatea) **kontraesana** da: errealitatearen gauza guztiak prozesu dialektikoaren elementuak dira.

Prozesu horretan aztertzen den kontzeptu bakoitzaren baieztapena **tesia** da —lehenengo une horrek ukapena darama barnean—, eta kontraesalea, **antitesia**. Horietatik, sortuko da **sintesia** (egoera berria: ukapenaren ukapena), tesia eta antitesia batasun orokorrago batean bilduko dituen. Dialektikan, **sintesiak**, nolabait, tesirako itzulketa ordezkatu du, baina itzulketa hori antitesiak hornitu duen aberastasuna erantsita etorriko da. Sintesian, tesian eta antitesian negatiboa dena baztertuko da eta positiboa dena hartuko.

Adibide bat: haziak bere baitan bizia biltzen du, eta izaeran darama bere izate propioaren ukapena; haziak da, baina landarea izatera (eta, beraz ez-haziak) behartuta dago. Landare izanik, bizidun berria aurrekoaren gainditzea da, egoera berriari egokitua, irauteko hobeto hornitua. Handik, berriro haziak sortuko da. Bizitza eta heriotza etengabeko prozesuan.

Gauzak, hortaz, ez dira bat izango, ez dira berbera izango: a eta a -ren kontrakoa ere, $ez-a$, izango dira. Unearen edo harremanaren arabera gauza bera da handia eta txikia, lodia eta argiala..., eta bata ezagutzeko, bestea (kontrakoa) ezagutu behar dugu.

Hemen ez du balio dagoeneko logika tradizional aristotelikoak. Logika hori kontraesanaren eta identitatearen printzipioetan oinarritzen zen, eta printzipio horiek dialektikaren esparrutik kanpo geratzen ziren.

Logika tradizionala:

- **Identitatearen printzipioa:** $a = a$
- **Kontraesanaren printzipioa:** a ezin da $ez-a$ izan.

(Edozein gauza ulertzeko, gauza hori errealitatearen osotasunetik bereizi behar da, logika horri egokituta —estatikoa, betierekoa—).

Logika dialektikoa: ez da identitatearen eta kontraesanaren printzipioetan oinarritzen. Logika tradizionala egokia zen, gaiak behin eta betiko definitu nahi baziren; baina Hegelek dioenez, **ideiek izaera kontraesalea dute:** aldi berean izango dira a eta $ez-a$.

(Errealitatea ulertzeko: aldaketa, eboluzioa, garapena, historia kontuan hartu beharra).

2.1.2. Materialismo dialektikoa

Marxek Hegelen unibertsoaren ulerkuntza dialektikoa jaso egingo du, hau da, errealitatea kontraesanaren legeak arautzen duen mugimendu betiereko eran ulertuko du. Dialektika marxistak, dena dela, hegeliarioaren **iraulketa** eratuko du. Ez du onartzen gauzen baitako kontraesanak **ideia hutsetik** ondoriozta daitezkeenik. Hegelen ikuskera «abstraktu» horren kontra, Marxek ikuspegi materialistatik defendatuko du dialektika.

Hegelen pentsaeran, errealitatea ulertzeko, espiritua edo arrazoia izango litzateke abiapuntua. Marxen ustez, berriz, materiatik hasten da dena, baina ez mekanismo fisiko gisa hartuta, baizik eta gizakien jardurekin uztarturik, gizakien kontzientziak eraturik. Abiapuntu ez dira izango ideia hutsak, errealitate material «konkretua» baino. Gauza konkretuarekin daukagun harremanak bakarrik adieraz diezaguke gai baten kontraesana, edo izan dezakeen bat-bateko aldaketa.

Horregatik, historia konkretuan, ez ideietan islatzen den historian, aurkakoak (tesia eta antitesia, a eta $ez-a$) hasieran **aldi berekoak** dira eta bata bestearekin eboluzionatuz doaz: a' eta $ez-a'$, $gero$, a'' eta $ez-a''$, *ondoren* a''' eta $ez-a'''$... Aldaketa bakoitza «jauzi kuantitatiboa» da. Kontraesana aurreratuz doa, esaten du Marxek, dialektika **bazterketa bihurtu** arte; orduan, aurkako batek **bestea ezeztatzen** du eta sintesi gisa ($ez-a''''$) agertzen da, «jauzi kualitatiboa» geratu delako.

Dialektika historiko hori Estatuan aplikatuko du Marxek, Estatuan —azken sintesi historikoa, Hegelen ustez— ez dela dena bukatzen esanez, zeren eta Estatuak bere gizarte-oinarri ekoizlea zapaltzen baitu. Proletarioak, beraz, ordenamendu juridikoaren eta ideologikoaren ukapen gisa sortzen dira, Estatuaren antitesi gisa —hori da, hain zuzen ere, *Alderdi Komunistaren Manifestuaren* salaketa—.

2.2. ALIENAZIOA

Alienazio hitza latinetik dator: *alienus* = bestea izan; norbera izatearen kontrakoa. Gaztelaniaz: *ajeno*; *estar enajenado/alienado* (ez nahastu *alineación*ekin = *poner en línea*). Harluxet Hiztegi Entziklopedikoaren arabera: *bere burua eta lanaren emaitza bere baitatik irtenik, besteren mende ikusten dituen norbanakoaren egoera*.

Alienazioari buruz hitz egin genezake zeren, beste errealitate guztiekin gure burua alde-ratzen badugu, **desberdintasun esentziala** baitugu gizakiok. Horregatik:

- gizakia ez denean pertsona gisa errealizatzen, ez du besteengandik bereizten duena errealizatzen —gizatasun osoa—;
- gauzei aurre egiteko askatasuna galtzen duenean, gizabanakoa **gauza bihurtzen** da, alienatu egiten da. Orduan, gizakiak natura gisa ikusten du bere burua, objektu bihurturik.

Gizakiaren kontrakoa natura da (= «gauzen mundua»).

Gizakiari autokontzientziak ematen badio berezkotasuna, naturari kontzientzia ezak ematen dio. Giza ekintzen munduan **askatasuna** dagoenez, edozein unetan alda daitezke ekintza horiek, eta jarrerak aurretik suma-ezinak izan daitezke. Naturaren munduan kontrakoa gertatzen da: lege fisikoak finko eta aldaezinak dira, **beharrak** agintzen du.

Edonola ere, bi motatako gauzak ditugu: naturarenak (objektu naturalak), eta gizakiok natura eraldatuz egindakoak (objektu kulturalak/artifizialak).

Hortaz, Hegelek alienazioa bi mailakoa izan zitekeela esan zuen:

1. Lehenengo mailakoa: **natura** espiritutik sortzen da arrazoiaren konkrezio gisa. Emakumeak eta gizonak, lehen une batean, naturarekin identifikatuta bizi dira; egoera hori **alienazio-egoera** da. Baina gizakia arrazionala denez, une horretatik bertatik hasiko da pentsatzen natura izatetik kanpoko zerbait dela, berari kontrajarria. Gizakia naturari bere burua kontrajartzen dion neurrian jabetuko da bere izateaz, bere izate arrazionalaz, eta, era horretan, ezagutzarako eta askatasunerako bidea hartuko du. Orduan, alienazio-egoera hori gainditu beharko du eta jabetu naturaren mundua ere arrazoizkoa dela eta naturaren legeen ezagutza arrazoiaren bidez bereganatuko duela.
2. Bigarren mailakoa: antzera gertatuko da **kultura**-munduarekin. Emakumeak eta gizonak lanarekin natura eraldatuko dute eta hortik dimentsio kulturala sortuko da. Kultura-mundua ere berengandik kanpokotzat hartuko dute. Gizartea garatzeko prozesuan nor bere interes pertsonalei uko egingo die eta taldearena izango da garrantzitsuena. Hemen ere **alienazio-egoera** gertatuko da: egileak berezkoa ez duena —objektu kultural hori— egiten duenean, sortutako alienazio-egoera, hain zuzen ondorio **positiboak** izango dituena, emakumeak eta gizonak askatasunari begira beren buruaz jabetzeko beste urrats bat emango dutelako.

Horregatik, Hegelen iritziz lehenengo alienazioa, naturarena, negatiboa da; eta kulturarena, aldiz, alienazio positiboa da, zeren emakumeak eta gizonak direlako objektuen sortzaile eta, aldi berean, objektuen ezagutzan beren buruaz jabetzen direlako.

Era berean, gauzak eskuratzea —jabetza— positiboa zen Hegelen ustez, askatasunaren garapena baita eta eskubide horrek, gauzez jabetzekoak, naturaren gaineko gizakien izpiritua baieztatzen baitu.

Hala eta guztiz ere, Hegelek ez zuen ikusi lanaren etekina ere alienazioa zenik. Hori kon-tuan hartuta, Marxek adierazi zuen zer modutan bilakatzen den gizakia morroi: gauzei beren buruari baino balio altuago emanez, emakumeak eta gizonak ere gauza bihurtzen dira. Eta Marxek esan zuen **dirua** zela alienaziorik garrantzitsuena, zeren gizakiak dirua baliabide izan beharrean helburu bihurtzen baitu.

Gizakiok gure beharrak —fisikoak edo espiritualak— asetzeko asmoz hasi ginen lanaren bidez gauzak ekoizten. Eta gauzen garrantzia honetan zetzan: gure beharrak asetzean, hau da, gauzen **erabilera-balioa**. Baina berehala sartu ginen lanaren emaitzaren truke-harremanetan. Orduan, lanaren emaitza **merkantzia** bihurturik, trukearen —eta gero salerosketaren— gora-beherak ematen edo kentzen dio balioa merkantziari: erabilera-balioa desagertzen da, eta **truke-balioa** —eskaintza/eskaria— bakarrik du garrantzia.

Egoera horretan, produktuen oinarritzko balioa gizakien lan-denbora da, produktuari erantsita-ko lan-kantitatea. Hala ere, merkantzia diru bilakatzean, balio-neurketa hori —lan-kantitatea-rena— desagertu egiten da, zeren **diruak berez baitu balioa**. Eta horretan datza «balioaren fetitxismoa»: gizakien lana eta giza harremanak abstraktu bihurtzen dira, diru-truke edo eros-teko gauza. Eta horrekin batera, **lan-indarra** ere merkantzia bihurtzen da.

2.2.1. Lanaren alienazioa

Lana, Marxen ustez, ez da zigorra gizakiarentzat, baizik eta, gizakiaren izaeraren bereiz-garri nagusia. Gizakia, lanaren bidez, bere inguruarekin harremanean, bere buruaren, bere izaeraren sortzailea da. Beraz, izadiarekiko harremanetik eta bere lanaren bidez sortzen den gizartearekiko harremanetik sortu da gizakia. Lana da norbanakoa askea izateko modua. Gizarte kapitalistan, ordea, emakumeak eta gizonak ez dira beren lanaren jabeak, saldu egin behar dute beren produzitzeko ahalmena, eta lana, askatzailea izan beharrean, alienatzailea bihurtuko da. Marxek lana jo du alienazio mota nagusitzat.

Marxen ustez, honako hauek dira lanaren alienazio motak:

- a) **Produktuarekiko alienazioa**. Produkzio-modu kapitalistan langileei kendu egiten diete lanaren emaitza: ez dira produzitutakoaren jabe, eta zatirik handiena kapitalistaren eskuetan geratzen da.
- b) **Ekoizpen-jardueretikiko alienazioa**. Langintza modernoak direla eta, gizabanakoa bizitza guztia eragiketa bera, behin eta berriro, egitera kondenatu du sistemak. Hartara, ez da denboraren jabea eta, gainera, ez du modurik era bateko edo besteko lanak eginez nortasuna garatzeko. Lan behartua egiten duten langileak ez dira beren ekintzen jabe, ez dira beren buruaren jabe lanean ari direnean. Animaliak bezala, behar organikoak asetzen bakarrik sentitzen dira aske, jaten, espeziea ugaltzen...
- c) **Naturarekiko alienazioa**. Lanaren bidez, etengabeko harremanetan gaude naturarekin. Bilakaera horretan natura da guretzat etxe, baliabide eta janari; eta guk, naturaren berre-gitearen sortzaileok, gure gisara eraldatuz, kultura bihurtzen dugu. Baina soldatapeko langileek ezin dute dimentsio sortzailea ikusi. (Egungo egoerak konparatuko balira, gaurko mugimendu ekologisten aldarrikapenetik oso urrun sentituko lirateke).
- d) **Beste gizakiekiko alienazioa**. Naturarekikoa ez ezik, beste gizakiekiko harreman uni-bertsala ere galtzen dute: besteak lehiakidetzat hartuko dituzte, edo «jabetzat». Eta jabe-

entzat ere besteak «langileak» edo lehiakideak dira. Bai batzuk, bai besteak naturatik edo giza harremanetik kanpo daude. Gizarte kapitalista honetako langileek, eguneko ordurik gehienak, era horretako lan alienatzailean pasako dituzte, esplotatuak, eta etxera itzuliko dira nekatuta, beren gogoia, beren espiritua, beren ahalmenak garatzeko astirik eta keme-nik gabe.

Marxen esanetan:

Gu errealitatean izaten ari den gertakari ekonomikotik abiatzen gara.

Zenbat eta aberastasun gehiago produzitzen duen, zenbat eta potentziaz eta tamainaz produkzio hori gehiago hazten den, orduan eta pobreago da langilea. Zenbat eta merkantzia gehiago ekoizten dituen, hainbat eta **merkantzia** merkeagoa **bihurtzen da langilea**. Giza munduaren balio-galtzea gauzen munduaren balorazioarekin zuzeneko proportzioan handitzen da. **Lanak** ez ditu merkantziak soilik produzitzen; **langilea ere produzitzen du merkantzia gisa**.

Gertakari horrek hau besterik ez du adierazten: lanak produzitzen duen **objektua**, izaki arrotz eta autonomo gisa, **kontrajartzen zaio langileari**. Lanaren errealizazioa langilearen errealizazio ezaren gisa agertzen da, objektuaren galera gisa eta harekiko morrontza gisa, objektuaz jabetzea alienazio gisa...

Objektuaren jabetzea halako punturaino agertzen da alienazio gisa, non zenbat eta langileak objektu gehiago produzitu, orduan eta gutxiago iristen baita jabetzera, eta produktuak, kapitalak, hainbat gehiago hartzen baitu menpean langilea.

(*Eskuizkribuak. Ekonomia eta filosofia*)

Marxen ustez giza bizitzaren oinarria lana da, eta ez arrazoia, nahiz eta Mendebaldeko filosofiak gizakiaren funtsezko indar gisa hori aldarrikatu zuen. Orduan, **zergatik alienatzen du lanak?** Gizaki proletarioaren lana sortzen den baldintza errealetan dago erantzuna. Proletarioari lanaren emaitza kontrajartzen zaio —bai lan-ekintza, bai langile gisa— izaki arrotz edo botere-etsai gisa. Lana, merkantzia bihurtuta, norberarekin zerikusirik ez balu bezala, alienatu egiten da.

2.2.2. Alienazio ideologikoa

Ideologia kontzeptua *alienazio*arekin lotuta agertzen da. Zergatik lotura hori? Giza egoera alienatua edo alienatzailea sustatu edo ezkutatu nahi duelako ideologiak.

Ideologia gizarte edo talde baten adierazpena da: horien **ideia multzoa**. Baina ideologia beti da *adierazpen deformatua*, errealitatearen *zerbait ezkutatzen* duelako, agian haren alderdi bat goraiatuz, edo errealitatearen mamia iluntzen duten ezaugarriak azpimarratuz ez du errealitate «osoa» azaltzen.

Ideologia hitza Destutt de Tracyk erabili zuen lehenengo aldiz, 1797an, «ideien zientzia» esanahiarekin. Zientzia berri bat sortu zuela uste zuen, zientzia «positiboa» izango zena, zalantzazko kontzepturik gabekoa.

Marxek bere idatzietan, berriz, zientzia izateko oinarririk gabeko nahiak dituen **sinesmen-sistemari** deritzo ideologia. Marxek bere garaiko ekonomia politikoaren nahi zientifikoak, *objektibotasunaren* nahiak, kritikatzeko, ideologia hitza erabiltzen du. Gizarte-ondasunak

ekoizteko baldintzen azterketa —hots, langileek pairatzen dituzten ekoizpen-baldintzak— ez dutela teoria ekonomikoaren oinarrian jarri aurpegiatzen die Marxek ekonomialariei.

Ideologiak beti dira interesen eta konpromisoen erantzunak, eta horrexegatik, fikziozko errealitatea sortzen dute, baina, irudimenezkoa den arren, benetakotzat hartzen dira. Ideologiaren eraginkortasuna hor dago: benetako errealitatean beste gezurrezko bat —gizarteak edo taldeak onartzen duena— sartzean.

Hori dela eta, ideologiko izango da:

- a) Bai alienazioa ukatzen duena, bai desalienazioa oztopatzen duena. Hau da, **askatasuna mugatu edo galarazi** egiten duena.
- b) Ideien sistema praktikan, praxian, eraginkorra dena: **eraginkortasun politikoa** bultzatzen duena.
- c) Errealitate historikoari baino ideiei balio gehiago ematen dien pentsaera.

Marxek alienazio guztiak kritikatu zituen. Lanaren alienazioaz gain, Estatuan (egitura juridiko-politikoetan), erlijioan (sinesmenetan), edo filosofian (pentsaeretan) agertzen dena ere eztabaidan jarri zuen.

2.2.2.1. Estatuan agertzen den alienazioa

Hegelen ustez, giza historia **arrazoiaren bilakaera dialektikoaren** isla da. Giza historiaren garapena giza pentsamenduaren aurrerapenaren historia da eta askatasuna garapen horren helmuga. Gizabanakoa, garapen historiko horretan, bere buruaz jabetzen joango litzateke, arrazoiaren heldutasunera iritsi eta askatasuna lortu arte.

Hegelen iritziz, historiaren garapenaren gailurra **estatu burgesaren** etorrerarekin lortuko litzateke. Estatu burgesean gizabanakoak askatasun bete-betea eta arrazoia indar osoz gauzatu lituzke. Gizabanakoen behar eta interesak bat etorriko bailirateke gizartekoekin. Gizabanakoen eta taldekoen edo alderdikoaren arteko beharrak direla eta, gizarte zibilean dau den tentsioak —tesiarene eta antitesiarene artekoak— Estatuaren egituren desagertuko lirateke goi-mailako harmonian, sintesian. Herrien bizitzan indar kontraesaleen arteko gatazka dialektikotik etorriko da aurrerapen historikoa.

Norbanakoa Estatuarekin, horren legeekin, identifikatu beharko da eta, aske izateko, gizabanakoaren jokaerak Estatuaren legeen menpekora izan behar du, zeren Estatuan moralak eta legeak bat egiten baitute: legezkoa moralki ona izango da, eta moralki ona, legezkoa; horrela **moraltasuna** eta **zuzenbidea** Estatuarekin identifikatuko dira.

Feuerbachek, berriz, erakutsi nahi du, halaber, Hegelen filosofia ere erlijioa bezain alienatzailea dela, izan ere, Hegelek ez luke ideia hutsen zirkulua hautsiko.

Feuerbachek gizarte-harremana gizakien arteko harreman bezala berrezarri du. **Jatorria ez da Estatu** izango, benetako errealitatea **norbanakoen arteko harremana** baita eta elkartasun hautsiezina egongo litzateke norbanakoen artean. Horrela, Hegelek sortu zuen Estatuari

buruzko teoria kritikatzan du, gizakia Estatuaren (arrazoi absolutuaren) menpe jarri zuelako. Gizabanakoa Estatuaren menpe jartzean alienatua geratuko litzateke.

Marxen kritika ere ildo berekoa da. Hegelek gatazken irtenbidea iragartzen zuen egituran —Estatu modernoaren eraikuntzan— kontrakoa ikusiko du Marxek: hots, Estatua bera dela proletarioak menperatzeko burgesiaren baliabidea. Estatua erregimen ekonomiko baten ondorio dugu, batzuen jabetza pribatuaren ondorioa. Eta erregimen hori babesteko gizarte zibilaren zatiketa eta enfrentamendua sortzen ditu, eta horrekin gizaki guztion elkarlana eta elkar-kidetza galarazten.

Hortaz, non dago Hegelek iragarritako **sintesi historiko** hori?

Estatuari —**tesia**—, aurkako elementu gisa, sortu zitzaion lan-indar berria: proletarioak, erantzuten du Marxek. Proletarioek, esplotaturik bizi direnez, botere zapaltzaile horretatik askatu nahi dute (**antitesia**). Askatasun-nahiak borroka bilakaturik «*historiaren gurpilari eragiten dio*» eta **sintesi** berri bat ekingo: proletarioen Estatua. Marxen esanetan, gaurko gizarte burgesean sortzen diren alienazio guztiak datorren gizarte komunistan bakarrik desagertuko lirateke.

Edonola ere, horrelako helburua lortzeko, proletarioak beren egoeraz kontziente izan daitezten, edozein sinesmenen kritika arrazionala lantzea beharrezkoa da. Alienazioa gainditzeko lehenengo pausoa honako hau da: **klase-kontzientzia** lortzea, klase esplotatuaren kideak direla jakitea. Orduan, langile-egoera jasangaitzaren ezagutzak bultzatuko ditu proletarioak gauzak aldatzera, klase sozialen arteko desberdintasunak ezabatzeko borrokatzera. Eta hori, Marxen ustez, **iraultzaren** bitartez bakarrik lor daiteke.

2.2.2.2. Alienazio erlijiosoa

Feuerbachek irauli egingo du Hegelen idealismoa. Lehentasuna ideiei emanbeharrean munduko gauzei emango die, gertaera zehatzari, norbanakoari... Filosofiaren abiapuntua ez da izango Jainkoa edo absolutua, zeren erlijioaren hastapenak fantasiako eraikuntzak besterik ez baitira izan, eta horien bidez emakumeek eta gizonek euren nahi, euren pentsamendu eta **euren gabeziarik sakonenak proiektatu dituzte**.

Errealitate horri gizakiarenak diren ezaugarri batzuk atxiki dizkiote: ezagutu, Jainkoak ezagutuko luke, ez gizakiak, Jainkoa omen baita dena ezagutzen duena; Jainkoak sortzeko ahalmena izango du, agintzeko ahalmena, boterea... Gizakiak Jainkoaren nahia bete behar du, ez norberarena.

Azkenean, bere asmaketa den Jainkoa nagusitu egin zaio eta gizakia **errealitate horren mendean geratuko** da, **gizakiak sortu duen** Jainkoaren edo erlijioaren mendean. Gizakien nahiek, ahalmenek erlijioaren forma hartu dute eta horren menpe geratu dira; orain, erlijioaren agindua bete behar duten emakumeak eta gizonak, beraz, alienatuta biziko dira, beren buruaren jabe, aske, izan ezinik.

Marxek Feuerbachen erlijioaren kritika bere egingo du, baina ez da bat etorriko erlijioaren eragina heziketa egoki baten bidez ezabatuko litzatekeelako ideiarekin. Miseria erreala-**ren adierazpen ideala** erlijioa da, zeren zeruko munduan proiektatzen baita lurrean falta zaiguna. Hemen behartsu eta triste bagaude, ez kezkatu!, han aberats eta zorionsu biziko baikara beti.

Erljioaren funtsaren eza *Ideologia Alemaniarr*a idazlanean era honetan irakur daiteke:

Moralak, erlijioak, metafisikak eta beste edozein **ideologiak** galdu egiten dute berezko izaera. **Ez dute historiarik ez garapen propiorik**, baizik eta produkzio materiala garatzen duten gizakiek (errealitate materiala aldatzearekin batera) aldatu egiten dituzte pentsamenduko produktuak. Kontzientziak ez du gizarte-bizitza determinatzen, baizik eta **bizi-baldintza materialek determinatzen dute kontzientzia**.

Marxen ustez, erlijioaren oinarrian ez dago sentimendu mistiko edo horrelakorik, baizik eta bizitzaren miseria. «*Erljioa herriaren opioa da*», proletarioen sufrimendua arintzeko droga. Giza egitura bidegabeko horren alienazioa ez da heziketa teorikoa dela medio desagertuko, harreman sozialen multzoaren eraldaketa iraultzailearen eraginez baizik.

2.2.2.3. Alienazio filosofikoa

Marxek gizakiaren existentzia bere osotasunean aldarrikatuko du. Ez du gizaki-existentzia hori ez-izate abstraktu batean oinarrituko (Estatuan, Jainkoan), ez haren materialtasun hutsean, ezta haren premietan ere. Ez da Estatu abstraktuaren peoi hutsa izango eta ezta premia material hutsen morroi ere. Hortaz, Marxen pentsaera aldendu egingo da:

- Bai **Hegelen idealismotik**, hau da, gauzen benetako ezagutza haien esentzia idealaren ezagutza dela ustetik. Edozein gauza bere osotasunean ulertzeko ez da nahikoa izango kontzeptuen bidez edo haiekin lotzen den arrazionaltasunaren bidez egitea.
- Bai bere garaiko **materialismo mekanizistatik** (Descartesen teorian oinarrituta), hots, makina baten funtzionamendua bezala giza mundua azal daitekeela onartzen duen teoriatik.
- Bai **zentzumenezko materialismotik** (Ingalaterrako enpirismoak sortua), «ezagutza orok sentimenetan besterik ez direla oinarritzen» esaten duenetik.

Era berean, **Feuerbachen materialismoa** kritikatu du: gizakia «abstraktu» gisa hartzen duelako, gizarte-prozesu historikotik eta dialektikotik kanpo jartzen duelako eta gizakiak naturarekin duen harreman dialektikotik urrun gelditzen delako.

Materialismo berriak, Marxenak, mundua eraldatzea du helburu. Kontua ez da **munduaren interpretazio hutsa** egitea, baizik eta gizakiaren arazoei irtenbidea ematea eta, beraz, munduan eragitea. «Filosofok, era desberdinetan, mundua interpretatu besterik ez zuten egin, baina garrantzia duena **mundua eraldatzea** da» (*Feuerbachi buruzko tesiak*).

2.3. MATERIALISMO HISTORIKOA

2.3.1. Materialismoa

Marxek **materialismo berri** deituko duen teoriak kontuan hartuko du giza izaera, batez ere munduan eragin dezakeena den aldetik, eta baita hartzaile den aldetik ere. Horregatik, gizaba-

nakoa —bai beste gizakiekin, bai naturarekin— kanpoarekiko harremanetan murgilduta ulertu behar da beti.

Marxen esanetan:

Aurreko materialismoaren akats nagusia —Feurbachena barne— errealitatea, zentzumenezkoa, «**objektu**» eran soilik ulertzean datza, eta ez «**giza jarduera** hautemangarri» eran, «praxi» eran... (*Feuerbachi buruzko tesiak*).

Hau da, zerbait zer den benetan jakiteko, giza jarduera, gizakien lana gehitu behar zaio ikuskera teorikoari. Orduan, gure ezagutzan gertatzen diren bi elementu aurkakoen (materiaren eta kontzientziaren artekoa) elkartze dialektikoa agerian jartzeko, «praxi» kontzeptua erabili du Marxek, eta horrela, idealismoaren eta aurreko materialismoaren kontraesana gainditu du.

2.3.2. Materialismoa historian

Marxen historiari buruzko ikuspegia materialismo historiko izenarekin egin da ezaguna. Horren muina —tesi nagusia— honetan datza: gizateriaren historia **klaseen arteko borroka**-ren historia da, eta borroka horretan, ekoizpena eta aberastasunen banaketa dago jokoan.

Emakumeak eta gizonak bi klase antagonikotan, esplotatzaile edo esplotatu, multzokatzen dira ahalmen ekonomikoen arabera. Klase bakoitzak bere interesak defendatzen ditu, eta horretarako, botere politikoa eta ekonomikoa eskuratzen eta defendatzen ahalegintzen da. Hortaz, gizarte baten legeak edo antolakuntza ulertzeko, lehenago gizarte horren bizi-baldintza materialak ulertu behar direla esaten digu **historiaren ikuskera materialista** horrek.

Lana giza askatasunaren agerpen nagusia da, baina askatasun hori gizakiaren existentziaren modu bereziak sortzeko ahalmen gisa ulertu behar da. Existentzia modu horiek mugak dituzte baldintza materialetan eta gizakiak historian barrena sortu dituen premietan. Hori dela eta, hainbat **produktzio-modu** sortu dira, Marxek aipatutako historiaren aroak:

- Jabetza pribaturik ez: **Komunismo primitiboa**. Gizarte tribala (lurraren jabetza komuna, lan-zatiketak gabe. Baliabideen gabezia).
- Jabetza pribatua: **Esklabismoa**. Inperioak (esklaboak eta jabeak. Gutxi ziren bai lurraren, bai gizabanakoen bizitzaren jabe).
 - **Feudalismoa** (jopuak eta jauntxoak. Gehienak nekazari ziren, eta nobleen lurak —feudoak— lantzen zituzten. Erregea eta noblezia ziren jauntxoak).
 - **Kapitalismoa** (proletarioak eta burgesia).
- Jabetza pribaturik ez: **Sozialismoa** (produktzio-baliabideen jabetza kolektiboa).
 - **Komunismoa** (ez gabezia, komunismo primitiboan bezala, baizik eta oparotasunean, klaserik gabea eta justizia banatzailea izanik).

2.3.3. Gizartearen antolakuntza materiala (ekonomikoa)

Gizarteak aurrerakuntzak egiten ditu, antzinagoko gizarteek egin ezin zutena gauzatzen du; baina klase batek bestea menperatzen badu, produktioan egiten diren urrats horiek

batzuentzat onuragarriak dira, baina zapalduentzat, gehienentzat, kaltegarriak, aurrerakuntza horien banaketa gutxi batzuen interesen araberakoa delako eta klase menperatzailearen interesak babesten dituelako.

Historialari burgesek deskubritu zuten ideia hori, baina ez ziren jabetu garai hartan borroka horren protagonistak burgesia eta proletarioak zirela. Estatu modernoak burgesiaren tresna da, eta burgesiak Estatuak erabiltzen du bere asmoak eta interesak aurrera ateratzeko. Langileek boterea eskuratzeko borrokan jarduten dute, boterea duen burgesia menperatzeko asmoz.

Gizarte kapitalistari dagokionez, oinarria lapurreta sistematikoan datza eta langileak dira lapurreta hori jasango dutenak. Merkantzia ekoizteko behar izan den lana balio du **merkantziak**; baina gizarte kapitalistan saltzen eta erosten den merkantzia ez da bakarrik produktu materiala: langilea bera, haren lana, merkantzia bihurtu da, saldu eta erosten den merkantzia. Langileak lanaren truke ematen zaiona baino gehiago produzitzen du (esaterako, hamar ekoiztu, baina bi kobratu). Langileak ekoizten duenaren eta jasotzen duenaren arteko aldeari **gainbalioa** deitzen dio Marxek, eta kapitalista geratzen da gainbalio horrekin. Egoera horretan langileak bizitza jasangaitza eramaten du, eta ezin izaten du bere izatea garatu, ez baita bere buruaren jabe.

2.3.3.1. Produkzio moduak

Produkzio-moduen kontzeptua azaltzen duenean, gizartearen egitura ekonomikoa osotasunean hartuta (orokorki eta era abstraktuan) adierazi nahi du Marxek, gizakien existentziaren baldintzak kontuan hartuz, bai sozialak, bai materialak. Eta gizarte baten produkzio-modua gizarteko egitura guztien elkarlanaren (indarren konbinaketaren) emaitza da.

Egitura hauek bereizten ditu:

a) Azpiegitura ekonomikoa: ondasun materialen produkzioaren esparrua da, eta hor bi maila ikusten ditu:

1. Produkzio-indarrak

2. Produkzio-harremanak

b) Gainegitura: oinarri materialaren gainean, bi egitura adieraz daitezke:

1. **Juridiko-politikoa:** gizarte-harremanak segurtatzen dituen zuzenbidea eta klase batek bestea menperatzeko tresna den Estatuak.

2. **Ideologikoa:** banakoen produkzio teorikoa eta espirituala biltzen du, eta horren bidez, gizakiek gizarte-bizitzaren kontzientzia hartzen dute.

a) azpiegitura ekonomikoa: **oinarri erreala.**

1. Produkzio-indarrak (gizakien eta objektuen arteko harremanak)

Produkzio-indar materialen kontzeptuak hau adierazten du: gizarte jakin baten ahalmen teknologikoa (giza **lan-indarrak**: prestakuntza teknikoa, eta **lanerako baliabideak**: tresnak, lurak, lantegiak...) premiak erabakitzeko memento historiko batean.

Historiaurreko garaietatik, gizakia naturak eman dionetik bizi izan da, eta lanak desberdinak izan dira sexuen arabera. Handik aurrera, Marxen ikuspuntutik, produkzio-indarren garapena sortzen da, eta horrekin batera, **lan-banaketa soziala**; prozesu hori areagotu egiten da Industria Iraultzarekin eta produkzio-modu kapitalistaren etorrerarekin.

Hori dela eta, Marxek aparteko garrantzia eman zien produkzio-indarren aldaketei, aldaketa horien menpekoa izaten baita, neurri handi batean, produkzio-harremanen bilakaera.


Horrela, bada, gizartearen oinarri errealaren osaketa produkzio-harremanen eta produkzio-indarren garapenarekin lotuta dago.

2. Produkzio-harremanak (gizakien arteko harremanak)

Produkzio-harremanak honela definitzen dira: gizarte historiko konkretu bateko partaide guztien artean, gizarte-bizibidea ziurtatzen dien eginkizunean sortzen diren harremanak.

Produkzio-harremanen mugatzailea lan-banaketa da (bakoitzari egokitzen zaion lana produkzio-modu jakin batean), eta, baita ere, gizarte-irabaziaren banaketa eta jabetza. Horregatik, produkzio-harremanak, ikuspegi juridikotik, **jabetza-harremanetan** adierazten dira. Jabetza pribatua dagoen gizarteetan, lanaren eta irabazien banaketa ezberdina da, eta horrek **gizarte-klaseak** sortzen ditu.

Historian zehar, beraz, produkzio-modu ezberdinak gertatzen dira, eta forma horiek produkzio-harreman ezberdinetan oinarritzen dira. Adibidez, gizarte esklabista, feudalismoa eta kapitalismoa produkzio-harremanen forma bereziak dira; forma horiek une batean egokiak izan dira, baina **traba bihur daitezke gizarte-garapenerako**; traba horiek direla eta, forma berriak sortzen dira; orduan, produkzio-harremanak ere **aldatu egiten dira**. Gizarte feudalak ez duenean balio bultzatzaile garatzeko, burgesia sortzen ari delako, gizarte eta produkzio-modu berria sortzen da, gizarte burgesa, alegia.



- b) Gainegitura: azpiegitura horren gainean, eta horren oso mendeko, honako mailak hauek kokatzen ditu Marxek.

1. Egitura juridiko-politikoa.

Gainegitura horren barruan sartu behar dira zuzenbidea eta gizarte jakin baten antolakuntza politikoa. Klaseetan oinarritutako gizarteetan, eta beraz, jabetza pribatuan oinarritzen direnetan —produkzio-modu kapitalistan, adibidez—, klase menperatzailerak ekoizpen-bideen kontrola izaten du bere eskuetan, eta, horretarako, menperatutako klaseen kalterako gauzatutako **Estatua** eta **legeak**.

Beraz, Marxek lotura estua ikusten zuen botere ekonomikoaren antolakuntzaren eta botere politikoaren eta legeen administrazioaren artean. Estatua klaseen arteko kontrakotasuna neutralizatzeko sortu zen, eta, borrokatik sortu zelako, klase indartsuenak, ekonomikoki nagusiak, bereganatu zuen indar politikoa, eta horrela, errepresiorako eta esplotazio ekonomikorako tresna berriez jabetu zen.

2. Egitura ideologikoa: gizarte-kontzientziaren erak.

Gizakiek bizitzaren prozesu osoa ulertzeko, irudikapen orokorra (errepresentazioa) egin beharra dute, eta hor bere lekua bilatu; horrela, egitura ekonomikoaz eta dago-kion antolakuntza juridiko-politikoaz gain, Marxek **forma ideologikoak** bereizten ditu, gainegituraren mailan.

Maila horrek bizitza eta logika propioak ditu, baina, hala ere, ez du existentzia banandua, bera ere beste egitura-mailekin harremanetan sortzen baita. Kontzientziaren agerpena hizkuntzaren bidez gauzatzen da, eta gizakia elkartrukearen premiaz jabetzen denean sortzen da hizkuntza; horregatik, **kontzientzia gizarte-produktua** da. Hizkuntza, bada, giza harremanen kontzientziari lotuta dago ezinbestez (animaliek ez dute halako kontzientziarik).

Hasieran, lanaren banaketa era naturalean egin zen, bakoitzaren ahalmen fisikoak kontuan harturik (indar fisikoa, adib.), baina lan-banaketa zatiketa bihurtu zen, lan fisikoa eta lan intelektuala bereiziz. Une horretatik, kontzientziak argudiatu zuen existentzia banandua duela eta mundu praktikotik bereizi egiten dela; mundutik banan daitekeela, eta teoria *hutsa*, teologia, filosofia *hutsa* eta moral *hutsa* sor ditzakeela.

Marxek horren aurrean haxe defendatuko du: kontzientziak gizakiaren izateari eta benetako bizi-prozesuari lotuta egon behar duela, «zerutik lurrera» jaisten den filosofiararen aurrean, «lurretik zerura» igoko dena egin behar dela. Horrela, erlijioak, filosofiak, moralak eta beste edozein ideologiak galdu egiten du bere itxura iraunkorra. Ez dute bizitza edo historia propiorik, baizik eta, produkzio-modua aldatzen duten gizakiek **errealitatea aldatzen duten heinean euren pentsamendua ere** aldatzen dute.

Forma ideologikoen **ezaugarria** honako hau da: partaideak diren gizabanakoak ez direla jabetzen prozesu produktiboaren beste esparruekin duten harremanaz, ezta egoera historikoaren eraldakuntzan duten protagonismoaz ere. Horregatik, Marxek proposatzen du egite historikoak gizarteak aztertuz azertu behar direla; baina, horretarako, garrantzitsua ez da gizarte batek bere buruaz pentsatzen duena, gizarte horrek produkzio-moduen bilakaeran jokatzen duen papera baino; izan ere, klase berri batek

boterea hartzen duenean, helburuak gizarte osoaren interesekoak balira bezala aurkeztu behar ditu, eta gainera, arrazoizko ideia bakarrak horiek balira bezala. Horrela, botere ekonomikoak botere politikoa sortzen duen bezala, forma ideologikoa ere eragiten du.

Klaseen arteko borrokak une asko ditu, eta era askotako antolamenduak eratzen. Antolamendu horietan, oinarri ekonomikoaz gain, gainegitura politikoa eta ideologikoa agertzen dira. Gainegitura horren helburua sistema politikoa eta boterea duen klasearen egoera babestea eta justifikatzea da, egoera orekatua mantentzeko asmoz. Gainegiturak balio du gizartearen barruan jendeak duen **egoera menperatua norberak ikus ez dezan**.

2.3.4. Gizarte aldaketa: iraultza

Dena dela, Marxek iragartzen du, denborarekin, botere ekonomiko hori gero eta esku gutxiagotan bilduko dela, gero eta kapitalista gutxiagoren eskuetan, eta proletarioak, berriz, gero eta gehiago ugarituko direla. Aberatsak aberatsagoak eta behartsuak behartsuagoak izango dira, klaseen arteko ezberdintasuna gero eta sakonagoa delako; eta horrek —hots, **baldintza «objektiboek»**, materialek— ekarriko du sistemaren krisia eta iraultza-egoera.

Aldizka, klaseen arteko borrokak muturrera jotzen du, krisia eragin eta egoera iraultzailea iziotzen du. Iraultza pizten da egitura ekonomikoak, sozialak, politikoak, intelektualak... ez duelako balio bere baitan jokatzeko duten produkzio-indarren artean dagoen orekari eusteko. Horregatik, iraultza hasten da, eta antolamendu berriak sortzen dira; azpiegitura eta horri dagoen gainegitura berriak ere sortzen dira.

Horrela, bada, gizartearen bilakatze horretan, gizakiaren eginbearra ez da errealitatearen garapena behatze hutsa bakarrik; baizik eta, behatze horretan eragitea, gizakien helburuei egokitzeke. Hau da, **baldintza «subjektiboak»** ere beharrezkoak dira, alegia, gauzak aldatu behar diren kontzientzia eta aldatzeko borroka.

Iraultza, sortzen bada, borroka horren ondorio izango da azkenean: burgesia desagertuko da, eta, horrekin, klaseen arteko borroka ere bai, ez delako egongo beste klaserik haren aurka borroka egiteko. Behin hori gertatuta, Estatuak, klase batek bestea menperatzeko tresna denez, alferrikakoa izango da, ez da beharrezkoa izango, eta deuseztatu egingo da. Emakumeak eta gizonak askatasun osoa lortuko dute, eta beren ahalmenak osotasunean garatuko dituzte.

Testua

3

3.1 TESTUAREN EGOKITASUNA

Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzuak, 1991n, «*Filosofiaren historia (testuak)*», LOGSE Batxilergoko 2. kurtsoa (Bilketariak: José Ramón Arana, Josu Erdozain)» liburuxka argitaratu zuen. Eta, harrezkero, klaseak emateko filosofia-testu ofizial gisa erabiltzen da. Hortaz, han agertzen den testua egokitzen saiatuko naiz.

(Oharra: Testua lantzeko gero agertzen diren *galdera* batzuen erantzunak —hobeto esanda, erantzunak zer lerrotan hasten diren— honela adierazten dira: 1. galderaren erantzuna (1), 2. galderarena (2)...; *Tesiak* formulatzeko aukeratutako zortzi paragrafoak, berriz, ohar elektroknoen bidez aipatzen dira, eta [A₁], [A₂]... siglekin, non hasi eta non bukatzen diren).

Alderdi komunistaren manifestua

Mamu bat dabil Europan zehar: komunismoaren mamua. Europa zaharreko Potentzia guztiak, mamu horri erasotzeko, Aliantza Saindu batean bildu dira: Aita Saindua eta Tsarra, Metternich eta Guizot, frantses erradikalak eta aleman poliziak.

Ez dago oposizioan alderdi bakar bat ere boterean daudenek komunistatzat jo ez dutenik, ezta alderdi bakar bat ere aurkakoei —aurrerazaleak nahiz erreakzionarioak—komunismoaren etiketa iraingarria jarri ez dienik.

Jokaera horretatik irakaspen bikoitza atera daiteke:

- 1) Europako Potentzia guztiek, dagoeneko, komunismoa Potentziatzat hartu dute.
- 2) Bada (1) garaia komunistek, mundu guztiaren aurrean, beren kontzepzioak, beren helburuak eta beren joerak erakuts ditzaten, eta komunismoaren mamuaren ipuinari Alderdiaren beraren Manifestu bat kontra jar dezaioten.

Horretarako, Londresen, nazio askotako komunistak bildu dira, eta Manifestu hau idatzi dute, ingelesez, frantsesez, alemanez, italieraz, nederlandez eta danieraz argitaratua izan dadin.

Burgesak eta proletarioak

Orain arteko (2) gizartearen historia¹ **klaseen arteko borrokaren historia** besterik ez da.

Gizaki librea eta esklaboa, patrizioa eta plebeioa, baroia eta jopua, ermandade-maisua eta ofiziala, hitz batez, zapaltzaileak eta zapalduak, beti ari izan dira elkarren aurka etengabeko gerran. Batzuetan agerian eta beste batzuetan ezkutuka. Gerra beti amaitzen zen gizarte osoaren aldakuntza iraultzailearekin, edo, bestela, borrokan ziharduten bi klaseak birrintzearekin.

1. «Edo hobeki esateko, historia idatzia. 1847. urtean, (3) historia idatzi guztien aurretik egon zen gizarte-antolamenduen historia, hots, historiaurrea, ia guztiz ezezaguna zen. Harrezkero, Haxthausenek Errusian lurraren jabetza komuna zela aurkitu zuen. Maurerek jabetza komuna germaniar tribu guztiak historikoki sortu zireneko oinarri soziala dela erakutsi zuen, eta pittinka-pittinka, konturatu zen, nekazaritza-komunitatea, lurraren jabetza kolektiboarekin batera, gizartearen jatorrizko biziera izan zela Indiatik Irlandaraino. Azkenik, Morganen aurkikuntza argitzaileak gensen egiazko izaera eta horrek tribuan zuen lekua ezagutzera emanaz, biluzi jarri du, bere tipikotasunean, gizarte komunista horrek zeukan egitura. Jatorrizko komunitate horren galararekin, gizartea klasetan banatzen hasten da, elkarren aurkakoak izatera iritsi arte». (Engelsen oharretan, 1888ko ingelesezko eta 1890eko alemanezko edizioetan agertua).

Lehen garai historikoetan, ia leku guztietan, gizartea estamentutan eraturik zegoela daku-sagu, hots, gizarte-baldintzek mailakatutako eskailera zela. Antzinako Erroman, patrizioak, zaldunak, plebeioak eta esklaboak zeuden; Erdi Aroan, berriz, jaunak, sujetak, maisuak, ofizialeak, jopuak eta, klase horietako bakoitzean, halako beste maila berezi batzuk.

Gizarte burges modernoak, gizarte feudalaren hondarren gainean eraikitakoak, ez zituen klaseen arteko aurkakotasunak ezereztatu. Klase berriak, beste zapalkuntza-bide berriak, eta borroka modu berriak sortuz aldatu zituen antzinakoak. Hori besterik ez.

Hala ere, gure garaian, hots, burgesiaren garai honetan —eta horixe dateke berorren izaera bereizgarria—, klaseen arteko aurkakotasunak sinpletu egin dira. Gizartea gero eta banandua goa dago aurkako bi klase zabaletan, zeharo etsaiak diren bi klase handitan: burgesia eta langileria.

Erdi Aroko jopuetatik lehen hirietako kaletarrak sortu ziren; kaletar populazio horretatik burgesiaren lehenbiziko elementuak agertu ziren.

Amerika aurkitzeak eta Afrikaren inguruko nabigazioak jaiotzen ari zen burgesiari mugitzeko era berria eskaini zioten. Indiako eta Txinako merkatuek, Amerika kolonizatzeak, kolonietako merkataritzak, truke-bideak eta merkantziak ugaltzeak, bultzada eman zieten trafikoari, nabigazioari eta industriari, ordura arte ezagutzen ez zen bultzada eman ere, eta, ondorioz, desegiten ari zen gizarte feudaleko elementu iraultzaileari bultzada handi bat ziurtatu zitzaion.

Antzinako produkzio-modu feudalak edo ermandade bidezkoak ordurako ezin zezakeen ase, merkatu berriak zabaltzea zela eta, hazten ari zen eskaria. Manufakturak ermandadeen lekua bete zuen. Industria-burgesia txikiak baztertu egin zituen ermandadeetako maisuak; eta horren ordez, lantegi-barneko lan-banaketa indartzen hasi zen.

Baina merkatuak etengabe hedatzen ari ziren, eta eskaria handitzen. Manufaktura bera ere urriegia zen; orduan, baporeak eta makineriak industria-produkzioa irauli egin zuten. Industria moderno handiak manufaktura baztertu egin zuen. Industria-burgesia txikiak bere lekua utzi behar izan zion milioidun burgesia industrialari, alegia, industria erraldoi batzuen jabeei, hots, burges modernoei.

Industria handiak munduko merkatua sortu zuen, Amerikaren aurkikuntzak aurrez ikusarazi ziguna. Mundu osoko merkatuak merkataritzaren, nabigazioaren eta lur-komunikabideen aurrerapena abian jarri zuen, era miragarrian. Aurrerapen horrek industriaren bilakaeran eragin zuen, eta industria, merkataritza, nabigazioa eta trenbideak aitzineratzen ziren neurrian, burgesia bera ere hazi egin zen, bere kapitalak ugaltu eta Erdi Aroak herentzian eman zizkion klaseak azken baztertera zokoratu.

Ikusten dugunez, burgesia bera ere aurreramendu luze baten emaitza da, produkzio-moduen eta komunikatze moduen iraultza batzuen ondorioa.

[A1] Burgesiak izandako eboluzioaren etapa bakoitza etapa horri zegokion arrakasta politikoarekin batera etorri zen. Burgesia despotismo feudalak zapalduko klasea izan zen; Komunari², aldiz, bere burua gobernatzen zuen elkargo armatua izan zuen; leku batzuetan hiri-

2. «Horixe da Italiako eta Frantziako hiritarrek hiritarren erkidegoari ematen zioten izena, jaun feudalei administrazio autonomo baterako lehen eskubideak behin erosi edo indarrez eskuratu eta gero». (Engelsen oharra, 1890ean alemanezko edizioan agertua).

tarren Errepublika librean antolatua; beste leku batzuetan, monarkiaren zergapeko zen hirugarren estatuan; geroxeago, manufakturen sasoian, monarkia mugatuetan edo absolutuetan, nobleziaren kontrapisua eta monarkia handien giltzarria izan zen; azkenik, industria handia eta mundu osoko merkatua finkatu zirenetik, (4) ordezkapen bidezko Estatu modernoaren botere politiko osoaren jabea. Gobernu modernoak klase burgesaren arazo komunetarako erakunde administratzailea besterik ez da [A₂].

Burgesiak historian zehar, funtsean, paper iraultzailea izan du.

Boterea konkistatu duen toki guztietan, harreman feudal, patriarkal eta **idiliozko** guztiak errekaratuta botatzen ditu. [B₁]Emakume eta gizon feudala beren nagusi naturalarekin batzen zituzten lokarri nabarrak erruki gabe hautsi ditu, eta gizakien artean interes hotza, «esku-diruzko ordaina» besterik ez du utzi. Kalkulu berekoien ur izoztuetan ito ditu erlijioaren estasia, zaldunen oldarra eta burges txikiaren sentimentalismoa.

(5) Pertsonaren duintasuna **trukeko balio** bihurtu du. Hain prezio handian lortutako askatasunak **merkataritza-askatasun** hutsak eta nahitaezkoak bihurtu ditu. Hitz batean, erlijio eta politikako ilusioaren bidez ezkutaturiko esplotazioaren ordezkari, esplotazio ageri, lotsagabe, zuzen eta basatia ekarri du.

Ordura arte benegarriak izan eta errespetu santuz kontsideratuak izan ziren bizimodu guztiei aureola kendu die burgesiak. Soldatapeko langile bihurtu ditu medikua, legegaria, apezka, poeta eta intelektuala ere.

Burgesiak familia-harremanak estaltzen zituen sentimenduzko beloa urratu du, eta dirupeko harreman izatera beheratu [B₂].

Burgesiak ederki erakutsi du Erdi Aroko indar-erakuspen basatiaren oinarri naturala alferkeriarik nazkagarriena besterik ez zela. Gizakia zer egiteko gauza den erakusten lehena izan da burgesia. Egiptoko piramideen, Erromatar akueduktuen eta katedral gotikoen maila gainditzen duten mirariak egin ditu, eta inbasioak eta gurutzadak gainditzen dituzten espedizioetan parte hartu du.

Burgesiak, existitzen jarraitzeko, lanabesak etengabe aurreratu behar ditu, eta horrekin batera produkzio-modua eta gizarte-harreman guztiak. Aurreko gizarte-klaseentzat, berriz, antzina-ko produkzio-modua iraunaraztea zen existentziarako lehenbiziko baldintza. (6) Produkzio-bideen etengabeko iraulketa eta gizarte-sistema osoaren etengabeko bultzadak dira, hain zuzen, garai burgesa eta aurreko guztiak bereizten dituenak.

Gizarte-harreman tradizional eta egonkor guztiak eta harreman horien inguruko sineste eta antzina ohoraturiko ideia guztiak urtu egiten dira; ideia horien lekua betetzen duten ideia berriak ere, sustraiak bota aurretik, zaharkituak geratzen dira. Sendotasuna eta iraupena zuen guztia desagertu egiten da, sakratua zen guztia profanatu, eta emakumeak eta gizonak, azkenik, bizi-baldintzak eta elkarrekiko harremanak desilusioz ikustera behartuta daude.

Bere produktuetarako merkatu berriak etengabe topatzeko premiak bultzaturik, burgesiak mundu osoa inbaditu du. Toki guztietara heldu behar du, leku guztietan bere burua jarri, alderdi guztietan komunikabideak eraiki.

Mundu osoko merkatuaren ustiapenaren bitartez, burgesiak herrialde guztietako produkzio eta kontsumoari izaera kosmopolita eman dio. (7) Erreakzionarioen etsipenerako, nazio-oinarria kendu dio industriari. Nazio-industria zaharrak birrindu eta, haien ordezkari, industria berriak

ezarri ditu, eta ezartze hori hil edo biziko eginkizun bihurtu da nazio zibilizatuentzat; industria horietan ez da gehiago bertako lehengairik erabiliko, eskualde urrunenetatik ekarritako lehengaiak baizik; eta industria horietako produktuak ez dira egindako herrialdetan soilik kontsumitzen, munduko leku guztietan baizik. Nazio-produktuek dituzten premia zaharren lekuan, premia berriak sortu dira, eta horiek betetzeko, eskualde eta klima urrunetako produktuak behar dira. Hasieran bere kabuz baliatzen zen merkatu nazionala dagoeneko ez da nahikoa, komertzio-sarea unibertsala da, eta, nazioen arteko dependentziak loturik, merkatu hartan nazio guztiak sartu dira. Eta produkzio materialari buruz esan dugun gauza bera esan daiteke produkzio intelektualari buruz. Nazio jakin baten obrak nazio guztien jabetza komuneoak bilakatu dira. Hertsitasuna eta eskusibismoa gero eta nekezagoak dira edozein nazioentzat, eta nazio- eta herri-literatura guztiak literatura unibertsalean bildu dira.

Produkzio-tresnen eta komunikabideen perfektionamendu arina bide, burgesiak naziorik barbaroenetara ere zibilizazioa sartu du. (7) Produktuen merkeak Txinako harresiak zulatu ditu, eta atzerritarrenganako etsaitasunik biziena zuten barbaroak ere makurrarazi. Nazio guztiak burgesiaren produzitzeko era onartzera, hau da, burges bihurtzera behartu ditu; edo, bestela, desagertzera. Hitz batez, bere irudiko mundua egiten ari da.

Burgesiak baserria hiriaren mende jarri du. Izugarritzko hiri handiak sortu ditu, hirietako populazioari baserrietakoa gehitu baitzaio. Hiria miragarri hazi da, lur-langintzako bizimodutik populazio handia atera baita. Baserria hiripean eta barbaro edo erdi-barbaro ziren nazioak nazio zibilizatuen menpe makurrarazi dituen bezalaxe, nekazarien herrialdeak burgesen herrialdeen menpera ekarri ditu, Ekialdea Mendebaldepera makurraraziz.

Burgesiak produkzio-bideak, jabetzak eta populazioa gero eta elkarrengandik hurbilago jartzen ditu. Populazioa bildu, produkzio-bideak zentralizatu eta jabetza esku gutxi batzuetan jarri ditu. Aldaketa horiek, nahitaez, zentralizazio politikoa ekarri dute. Herrialde independente zirenak, edo gehienez elkarrekin federatuak, bakoitzak bere lege, gobernu eta aduana-sari desberdinak zituztenak, burgesiak nazio bakar batean³ bildu ditu, hots, gobernu bakarrean, lege batean, klasearen interes nazionalean eta aduana hesi bakar batean.

Burgesiak, bere klase-agintearekin, oraindik ehun urte ere ez dituen arren, aurreko belau-naldi eta mende guztiek elkar hartuta baino produkzio-indar gehiago eta handiagoak sortu ditu. Gizakiak naturaren indarrak nola erailtzen dituen erreparatzea nahikoa da: makinerian, industriari eta lur-langintzari kimika aplikatzen, baporezko nabigazioan, trenbideetan, telegrafo elektrikoetan, kontinente osoaren lur urraketat, ibaiak nabigagarri egiten, lurretik, mirakuluz bezala, sortzen ari diren herrietan; aurreko zein mendek susma zezakeen holako produkzio-indarrak giza lanaren barnean lo zeudela?

Hona, bada, ikusi duguna: burgesia eraikitze oinarria izan diren produkzio-rako eta truke-rako bideak gizarte feudalaren barnean sortu ziren. (8) [C₁] Produkzio-rako eta truke-rako bide horiek halako aurreramendu-maila batera heltzean, sistema feudalekoak (gizarte feudalak produzitzeko eta trukatzeko behar zituen baldintzak eta lur-langintzaren eta manufakturaren anto-lara feudala, hitz batez, jabeen gobernamendu feudala) zahartuak eta desagokiak ziren, aurretzen ari ziren produkzio-indarrekin alderatuta. Produkzioari erraztasunak eman beharrean,

3. Manifestuaren egileek, hemen nazio eta Estatu kontzeptuak nahasi egiten dituzte. Italian edo Alemanian, kasu, probintzia autonomoak nazio bakar batekoak ziren, hizkuntza, kultura eta sentimenduak lekuko. Frantzian, Espainian edo Errusiar enperadoregoan, aldiz, «probintzia» horietako asko nazio ezberdinak ziren (itzultzailearen oharra).

oztopoak jartzen zizkioten, kate gisa funtzionatzen baitzuten. Kateak hautsi beharra zegoen, eta hautsiak izan ziren⁴.

Funtzionamendu horren lekuan, norgehiagoka librea ezarri zen, burges-klasearen zapalkuntza ekonomiko eta politikoari zegokion konstituzio sozial eta politiko batez hornitua.

Gure begien aurrean, antzeko mugimendua gertatzen ari da. Produkzioarako eta truke-rako baldintza burgesek, jabetzaren gobernamentuak, produkzioarako eta truke-arako bide hain handiak sortu zituen gizarte burges moderno honek deitu eta erakarri dituen infernuko indarrek dagoeneko menperatu ezin den aztia dirudite [C₂]. (8) Orain dela hamarkada batzuetatik hona, industriaren eta merkataritzaren historiak bat egiten du produkzio-indar modernoek matxinadaren historiarekin, hots, oraingo produkzio-harremanen aurka altxatzen diren indar produktibo modernoek matxinadaren historiarekin, burgesiaren existentzia eta horren nagusitasuna bermatzen duten jabetza-harremanen aurka altxatzen den matxinadaren historiarekin. Aski dateke merkataritza-krisialdiak gogoratzea: behin eta berriro errepikatzen dira tarteka, eta, horrela, gizarte burgesaren existentzia gero eta egonkortasun exkaxagokoa egiten dute. Krisialdi bakoitzak suntsitu egiten ditu erregularri eta neurri handi batean, ez bakarrik aurretik sorturiko produktu pila, baizik eta, horrez gain, baita produkzio-indarrak berak ere. **Beste edozein garaitan paradoxa izango zatekeen izurrite bat dator gizartearen gainera: superproduzioaren izurritea. Gizartea, bat-batean, aldi baterako anabasa egoeran amilduta geratu da; gose izurriteak edo oro suntsitzeko gerrak bizirik irauteko baliabide guztiak kenduta utzi zutela esan liteke; industriak eta merkataritzak behea jota dirudite.** Eta zergatik? (9) Gizarteak zibilizazio handiegia duelako, baliabide gehiegi duelako, industria eta merkataritza handiegia dituelako. Dituen produkzio-indarrek ez dute jabetza burgesaren aurrerapenaren alde egiten; aitzitik, boteretsuegiak bihurtu dira; eta, horregatik, oztopoa jartzen diote aurrerapenari; eta oztopo horretatik askatzen diren bakoitzean, produkzioarako gizarte-indarrok gizarte osoa desordenarako bidera eramaten dute, eta gizarte burgesaren existentzia bera ere arriskuan jartzen dute. Sistema burgesa estuegi bihurtu da berak sortutako aberastasunak bereganatu ahal izateko.

Nola gaintzen du burgesiak krisi hori? Alde batetik, produkzio-indar asko gogorkeria erabilita birrinduz; bestetik, merkatu berriak bereganatuz eta zaharrak sakonago esplotatuz. Eta nora daramate jokabide horiek? Are krisialdi zabalago batzuk eratzera eta horietatik ihes egiteko bideak gutxitzen.

Burgesiak feudalismoa eraisteko erabili zituen arma berak burgesiaren beraren aurkako bihurtu dira [D₁]. Baina gizarte burgesak herioa ekarriko dioten armak egin ez ezik, arma horiek erabiliko dituzten gizakiak ere eragin ditu, hots, langile modernoak, proletarioak.

Burgesiak, hau da, kapitalak, aurrera egiten duen neurri berean egiten du aurrera proletarioak, alegia, langile modernoek klaseak, lana aurkitzen badute biziko diren klaseak, **gainera, kapitala handitzen den heinean, bakarrik, lana aurkituko dutenen klaseak.** (10) **Langileak** beren buruak pixkanaka saltzera behartuta daude, **merkantzia** dira, eta, beraz, merkantziek bezala lehiatu behar diren gorabehera guztiak pairatzen dituzte⁵. [D₂]

4. Kateak apurtzea, Frantzia eta Europako parte handi batean, Frantziako Iraultzaren eta Napoleonen gerren fruitua izan zen (1789-1815 urteen artean gertatuak).

5. Marxek, geroago, langileek, lana ez, baizik eta lanerako indarra saltzen zutela frogatu zuen (itultzailearen oharra).

Makineria sartzeak eta lanaren banaketak langilearen funtzioari nortasuna, ekimena eta erakartasuna kendu zizkion. Langilea makinaren osagarri huts bihurtu zen; eta operaziorik errazena, aspergarriena eta ikasteko arinena besterik ez zitzaion eskatzen. [E₁] Beraz, gutxi gorabehera, bizirauteko eta kasta ugaltzeko behar duen gutxienekoa besterik ez zen langileak sortzen zuen gastua. Baina, **lanaren prezioa**⁶, beste edozein merkantziarena bezalaxe, produkzio-kostuaren berdina zen. Beraz, zenbat eta nazkagarriagoa izan lana, orduan eta txikiagoa da langileari ordaindua. Areago, makineriak eta lan-banaketak handitzen doazen heinean, lanaren kantitatea hazi egiten da, bai lan egiteko orduak handitzen direlako, bai makinaren abiadura azeleratzen delako, bai denbora zehatz batean eskaturiko lana handiagoa delako, etab.

Industria modernoak maisu patriarkalaren lantegi txikia burges kapitalistaren fabrika handi bihurtu du. Fabrikan pilatutako langile oldeei antolamendu eta diziplina militarra eman die. Langileak, industriaren soldadu xumeak bezala, ofizialen eta ofizialordeen hierarkia osoaren begipean jarrita daude. Ez dira **klase burgesaren** eta **Estatu burgesaren** esklaboak soilik; horrez gainera, egunero, ordu guztietan, **makinaren esklaboak** dira, arduradunarenak, eta bereziki, **fabrikako jabe burgesaren esklaboak**. Zenbat eta garbiago aldarrikatu despotismo horren helburu bakarra irabazia dela, hainbat eta ziztrinago, gorrotagarriago eta jasanezinoago egiten da.

Lanak behar dituen indarra eta trebetasuna zenbat eta txikiagoak izan, hau da, industria modernoak zenbat eta aurrerago joan, hainbat eta emakume eta haur gehiago jartzen dira gizonezkoen lanleketan. Adinaren eta sexuaren ezberdintasunek ez dute jadanik batere garrantzirik langile klasearentzat. Gizon, emakume eta umeak lanerako tresnak besterik ez dira, eta haien arteko alde bakarra kostea da.

Langilea, lantegi-jabeen esplotazioa pairatu ondoren eta soldata jaso eta gero, burgesiaren beste elementu batzuen ehizakia da: etxejabeena, dendariena, mailegu-emaileena, eta abar.

Industriari txikiak, salerosleak eta errentadunak, eskulangileak eta nekazariak, hots, lehengo erdiko klaseen beheko maila osoa, proletario izatera iragaten dira. Batzuek, kapitalista boteretsuenen lehiari ezin diotelako aurre egin, beren kapital txikiekin ezin direlako industria handiaren bidean sartu; eta besteek, beren trebetasun teknikoa produkzio-modu berrien aurrean baliorik gabe gelditzen delako. Honela, bada, langileria populazioaren klase guztiekin osatzen da.

Proletarioa hainbat eboluzio-fasetatik iragan da, baina burgesiaren aurkako borrokari hasiera-hasieratik ekin zion.

Hasieran, langile isolatu batzuk hasi ziren zuzenean esplotatzen zituzten burgesen aurka; ondoren, fabrika berean lan egiten zutenak, eta azkenik, ofizio berekoak. Langileek ez zuten produkzio burgesaren erregimenaren aurka bakarrik egiten, produkzio-tresnen aurka ere bai. Konpetentzia egiten zieten atzerritar merkantziak birrindu zituzten, makinak hautsi, fabrikei su eman, eta Erdi Aroan langileak zuen lekua, ordurako galdua zuena, berreskuratzeko ahaleginak egin zituzten.

Une horretan, langileria herrialde guztietan barreiatua eta lehiak banaturik zegoen masa zen. Langileak masa estuetan bat eginda zeuden, baina ez zen langile-batasunaren ondorioz, burgesiaren batasunaren ondorioz baizik, burgesiak bere helburu politikoetarako langileria osoa mugimenduan ipini behar baitzuen, eta oraindik bazuen hori egiteko ahalmena. Fase

6. Geroago horri Marxek «lan-indarra» deituko dio.

horretan, proletarioek ez zuten oraindik gudurik egiten etsai propioen aurka, etsaien etsaien aurka baizik, hau da, monarkia absolutuaren hondakinen aurka, lurdunen, industrialariak ez ziren burgesen eta burges txikien aurka. Horrela, mugimendu historiko osoa burgesiaren eskuetan zegoen; eta horrela lorturiko garaipen guztiak garaipen burgesak besterik ez ziren.

(11) Baina, hala ere, industriaren aurreramenduak proletarioak ugaltu ez ezik, masa handiagotan bildu ere egiten zituen. Proletarioak gero eta indartsuago ziren, eta gero eta indartsuago izatearen jakitunago ere bai. Makinariak laneko kategorien eta langileen arteko diferentzia gutxitzen, eta, aldi berean, ia toki guztietan soldatak bateratzen zituen heinean, proletarioen bizi-baldintzak eta interesak gero eta antzekoagoak ziren. Burgesen artean sorturiko gero eta lehia handiagoak eta horrek eragiten zituen merkataritza-krisiek gero eta kolokago jartzen zituen langile-soldatak; makineriaren etengabeko hobetzeak langilearen egoera gero eta larriago egiten zuen; langile eta burges batzuen arteko talkak, gero eta nabariago, bi klaseen arteko talkak ziren. Langileak, soldataren defentsarako, burgesen aurka elkartzen hasi ziren eta, gerta zitezkeen gatazkei aurre egiteko, erakunde iraunkorrak sortu zituzten. Handik eta hemendik, borroka eta matxinadak lehertu ziren.

Noizean behin, langileek garaipenen bat lortzen zuten; baina iragankorra beti. Borroka horien egiazko helburua ez zen epe motzera erantzuna lortzea, baizik eta langileen batasuna hedatzea eta sendotzea. Industria handiak egindako garraio-bideen zabaltzeak batasun hori erraztu egin zuen, leku askok langileei elkarrekin harremanean egoteko aukera ematen baitzien. Eta harreman horri esker, izaera bera zuten borrokek nazio-borroka bihurtu ziren, hots, klaseen arteko borroka. **Eta klaseen arteko borroka guztia borroka politikoa** da. Erdi Aroko hiriek, garaiko bidexkak zirela eta, mende osoak behar izan zituzten elkartzeko, eta proletarioek, aldiz, trenbideei esker, urte batzuetan lortu zuten.

Langileen beraien arteko norgehiagokak azpitan zuen proletarioa **klase** gisa eta baita alderdi politiko gisa ere antolatzea. Hala ere, antolaketa hori beti aurrera eta garaile zihoan; gero eta indartsuago, tinkoago eta lehiatsuago. Eta burgesen arteko barne-konponezinak baliatuz, langile klasearen interes batzuk legez onarrarazi zituzten: adibidez, Ingalaterrako hamar orduen legea.

[F₁] Eskuarki, gizarte zaharraren barnean gertatu ziren aurkakotasunek langileriari bultzada eman zioten. Burgesia etengabeko borrokan ari zen; lehenik, aristokraziaren aurka; ondoren, industriaren aurrerapenen kontrako interesak zituzten burgesiaren barneko sektore batzuen aurka; eta beti, beste herrialdeetako burgesiaren aurka. Borroka horietatik irteteko proletarioengana jo beharra zegoen, eta horrela proletarioa mugimendu politikora bideratu zuen. Hartara, bada, burgesiak proletarioei heziera politiko propioaren hastapenak eman zizkien, hau da, bere buruaren aurkako armak.

Ikusi dugun bezala, industriaren garapenak aginte-klaseko hainbat elementu proletario bihurtu zituen, edo behintzat, bizi-baldintza berean bizitzera behartu. Eta horrek proletarioa indarberritu egin zuen [F₂].

Azkenik, klaseen arteko borroka erabakitzeke zegoen unean, feudalismoko aginte-klasearen desegite-prozesua hain bortitza eta argia zen, aginte-klase horretako zati txiki bat bertatik banandu eta iraultzaren alde jarri baitzen, alegia, etorkizuna eskuetan zuen klasera igaro zen, langile-klasera. Horrela, lehen nobleziako batzuk burges izatera iragan ziren, eta orain burgesiaren zati bat langileria izatera iragan da. Historiaren haria teorikoki aztertu, eta norabidea hori ikusi zuten burges intelektualak izan ziren aldaketa egin zutenak.

Burgesiari aurre egin zion klase guztietatik, langileria bakarrik da benetako klase iraultzailea. **Beste klaseak hil eta industria handia sortzearekin batera desagertu ziren.** Industriaren produktu berezi eta purua da langileria.

(12) Erdiko klaseak, industriari txikiak, saltzaile txikiak, eskulangileak, nekazariak, guztiak klase gisa, beren buruak oinperatzen salbatzeko, burgesiaren aurka ari ziren. Ez ziren, beraz, iraultzaileak, kontserbadoreak baizik; are gehiago, erreakzionarioak, historia atzera itzul zedin eskatzen baitzuten. Iraultzailetik zeukatena langilerian amiltze nahitaezko eta berehalakoak eragindakoa zen. Horrela, geroko interesen alde ari ziren eta ez garaikoen alde; izaera propioa utzi eta proletarioarena besarkatu nahi zuten.

Proletario zarpaila, gizarte zaharreko maila baxueneko ustelkeria pasiboa, iraultza proletarioaren aldeko mugimendura bultzatua izan zen, nahiz eta, beraien bizi-baldintzak zirela eta, erabilera erreakzionarioak eros zitzaizkien egokiagoak izan.

[G₁] Gizarte zaharraren bizi-baldintzak proletarioen bizi-baldintzek deseginak izan ziren: proletarioak ez du ondasunik, emazte eta haurrekin duen harremanak ez du zerikusirik familia burgesean zuenarekin; ekoizpen modernoak eta kapitalaren uztarri modernoak, Ingalaterran zein Frantzian, Ipar Amerikan zein Alemanian, berdinak, proletarioari nazio izaera kentzen zion. Legea, moralak, erlijioa, atzean hainbat interes burges gordeta zeuzkatena, beste hainbat aurreiritzi burges besterik ez ziren proletarioentzat.

Langileriaren aurretik boterea eskuratu zuten klase guztiek, lortutakoa iraunkor bihurtzeko, gizarte osoa lortutakora makurrarazi egiten zuten. Proletarioak produkzio-indarrez jabetzeko era bakarra lotuak dauden erosteko ahalmenaren erregimena eta gizarteak horrekin batera daukan eskuratzeko-erregimena indargabetzea da. Proletarioek ez daukate propietaterik galtzeko; besteen ondasun pribatua birrintzea da haien egitekoa [G₂].

Orain arteko mugimendu historiko guztiak gutxiengoek egin dituzte edo gutxiengoen probetxurako eginak izan dira. Proletario-mugimendua gehiengo handiak gehiengo handiaren probetxuan egindako mugimendu autonomoa da. Langileria, oraingo gizartearen maila baxuena eta zapalduena, ezin da jaiki, ezin zutitu, gizarte ofiziala den eraikina zimendutik gailurre-ra leherrarazi eta hauts egin gabe.

Langileriak burgesiaren aurka egin zuen borroka; hasieran, forma aldetik, behintzat, ez edukiagatik, naziokoa zen. Bidezkoa zen herrialde bakoitzeko langileriak, lehendabizi, bertako burgesiarekin konpontzea auzia.

Langileriaren garapenaren faseak azaltzean, gainetik, bederen, egungo gizartearen barnean eta erdi-estalirik dagoen gerra zibilaren gertakariak jarraitu ditugu, gerra zibil horrek iraultza tolesgabea eragin artekoak eta langileriak bere agintearen oinarriak jarrita burgesia indarrez bota artekoak.

Gaur egun arte, gizarte guztiek zapalduen eta zapaltzaileen arteko aurkakotasuna izan dute oinarri. Baina, klase batek zapaldua baina bizirik iraun dezan, nahitaezko baldintzak ziurtatu behar zaizkio, hori egin ezean klase hori desagertu egingo bailitzateke, eta aldi berean, baita esklabo izatea bera ere. Feudalismoan, jopua herriaren kide izan zitekeen, jopu izateari utzi gabe, eta absolutismo feudalean, baita plebeioa burges ere. Langile modernoak, ordea, industriaren aurrerapenekin igo egin beharrean, gero eta beherago doa, bere klaseari dagokion maila baino beherago gainera. Langilea behartsu bihurtzen ari da, eta pobrezia populazioa eta aberastasuna baino arinago hazten. Eta hori frogatzen garbia da gizartearen gobernatzen jarraitzeko eta

klase gisa bizi-baldintzen arauak ezartzeko burgesiaren ezintasunarena. Ezin goberna dezake, ezin ziurta diezaiokelako existentzia esklaboari, ezta esklabotasunean jarraitzeko ere. Izan ere, esklaboa lur jotzeraino utzi behar du, halako punturaino, non azkenean burgesak mantendu behar duen esklaboa, esklaboak burgesa mantendu beharrean. Gizartea ezin da bizi klase horren agindupean; burgesiaren bizimodua eta gizartea batera ezinak dira.

(13) [H₁] Klase burgesaren existentziak eta gailentasunak funtsezko baldintza dute pixka batzuen eskuetan aberastasuna pilatzea, kapitala etengabe sortzea eta haztea. Aldi berean, kapitala desagertu egingo litzateke, soldatapeko lanik izan ezean. Soldatapeko lana ezinbestekoa da langileen arteko norgehiagokan. Industriaren aurrerapenek burgesia dute iturri, eta norgehiagokak eragindako banatzearen ordez, langileen antolaketaren bidez, elkartze iraultzailea sortzera daramatzate. Horrela, industria handiaren garapenak astindu egingo du burgesiak produzitzeko eta produktuaz jabetzeko duen sistema. Eta garatzen doan heinean, burgesia bere hobia zulatzen eta ehorzleak sortzen ari da. Burgesiaren heriotza eta langileriaren garapena saihestezinak dira [H₂].

3.1.1. Testuari buruzko galderak

Testuetako ideiarik inportanteenak argitzeko eta sakontzeko galdera batzuk:

1. Zer helburu du idatziak?
2. Zein da Materialismo Historikoaren lehenengo baieztapena, historiaren mamia?
3. Non dago historiaurrearen eta garai historikoen arteko aldea?
4. Zer da Estatu modernoa?
5. Zer utzi du begi-bistan burgesiaren sorrerak?
6. Zertan bereizten da garai burgesa aurreko garaietatik?
7. Nola lortzen du burgesiak mundua bere irudikoa egitea?
8. Noiz —zer baldintzatan— sortzen da egoera iraultzailea?
9. Zergatik sortzen du sistema burgesaren krisia superproduktzioak?
10. Zer da merkantzia gizarte kapitalistan?
11. Hasieran, zerk bultzatu zituen langileak elkartzera?
12. Nor iragaten dira langileriara beste klaseetatik irtenda, nahiz iraultzaile gisa, nahiz kontserbadore gisa?
13. Zein da burges-klasearen existentzia eta gailentasunerako funtsezko baldintza, hain zuzen ere, proletarioak deuseztatu behar duena?

Testuan erantzunak aurkitzen diren lerroak era honetan (1), (2),..., (13) daude aipatuta.

3.1.2. Testuaren tesi batzuk

Ohar elektronikoen bidez 8 paragrafo aipatzen dira, handik ateratzeko dagozkien tesiak. Hau da, lehenengo paragrafoa [A₁] idatzita dagoenean hasten da, eta [A₂] agertzen den lerroan bukatzen da. Horrela beste zazpiekin: [B₁]...[B₂], [C₁]...[C₂], etab.

Eta tesiak ondo formulatuta ote dauden jakiteko, ondoren, —eredu gisa— erantzunak eskaintzen dira:

- A. Politika-arrakastak lagunduta eratu zen burgesia feudalismotik, eta bere erakunde administratzaile gisa sortu zuen Estatu modernoa.
- B. Askatasuna merkataritza-askatasun huts bihurtuz, burgesiak giza harremanak dirupeko harreman edo trukerako balio bihurtu ditu.
- C. Historian zehar, une jakin batzuetan, hainbeste garatutako produkzio-indarrek zeharo aldatzera behartu dituzte produzitzeko eta trukatzeko baldintzak (jabetzarenak).
- D. Merkantzia bihurtutako langileak badu bere eskuetan burgesia desagerrarazteko gaitasuna.
- E. Merkantziaren kostua produkzioarena denez, kostua jaisteko lanaren prezioa ere jaitsi egin behar da, alegia, langileen soldata.
- F. Burgesen arteko etengabeko gerra-egoerak proletarioen laguntza behar du, eta horrek armak ematen dizkie proletarioei.
- G. Proletarioek, ezereen jabe ez direnez, jabetzeko era ezabatzeko premia dute.
- H. Klase burgesaren existentziak kapitala sortzea eskatzen du, eta horrek, soldatapeko lana eta langileen norgehiagoka. Horrela burgesiak bere buruaren ehorzleak sortuko ditu ezinbestean.

Iruzkin kritikoa

4

Ez dago zalantzarik, XIX. mendean, kapitalismo basatienaren garaian, Marxek teoria sendoa eskaini zuela langileen miserian oinarritzen zen produkzio-modu kapitalistari aurka egiteko. Lanordu luzeak, soldata txikiak eta segurtasun eskasa ziren eredu kapitalistaren hazkundearen oinarriak, eta oraindik indarrean daude Hirugarren Mundua deitzen ditugun nazioetan. Marxek egindako analisietan, gizakien esplotazioan oinarritzen zen sistemaren injustizia gogor salatzeaz gain, sistema horren egitura ekonomikoaren teoria eta alde praktikoak aldatzea ere proposatu zuen.

Dena dela, errealitate historikoak Marxen pentsaera zenbait aspektutan berrikustera eramane gaitu. Bereziki garrantzitsuak diren bost ekarriko ditugu harira.

1. Alde batetik, garaiko **arrazionalismoaren eragina** nabari da Marxengan, proletarioen gaitasun iraultzailean duen konfiantzan. Marxek uste zuen, proletarioak bizi zuen egoera alienatua garbi ikusten bazuen, egoera hori aldatzeko borroka egingo zuela.

Puntu eztabaidagarriak:

- Argudio arrazionalak, bakarrik, ez du mugiarazten jendea. Era batean edo bestean, mugiarazteko, logika arrazionaletik kanpo omen dauden beste faktore batzuk ere badira: interesak, sentimenduak, motibazio inkontzienteak, ideologiak... erabakigarriak izan daitezke une edo egoera jakin batean.
- Arrazionalismoa historiari aplikatuz, garai historiko bati beste batek jarraitu behar al dio derrigorrean? Hori uste izateak bilakaera historikoa bakarria dela esan nahiko luke, ez daudela aukera asko, behintzat, edo sistemak ez duela bere barruan eboluzionatzeko modurik. Baina, egia esan, kapitalismoak eboluzionatu egin du erdi-mailako klase zabala sortuz eta Iparraldeko herrietan, nolabait, atzean utzi ditu gizabidezkoak ez diren lan-baldintzak.
- Estatuaren antolakuntzari buruz Hegelek egindako teorian, **logika dialektikoaren «sintesia»** ez zela agertzen kritikatu zuen Marxek. Baina inon agertzen al da sintesi hori? Adibidez, *zibilizazioa* (kolonizazio europarra) tesi gisa hartzen badugu, *barbarotasuna* (herri indigenak) antitesia da; baina, historiak erakusten dizkigun sarraskiak, esklabutza, aberastasunen lapurreta... kontuan hartuta, zein da sintesia? Edo, *teknologiaren* (zientziaren aurrerapena) eta *ekologiaren* (naturaren biziraupena) arteko sintesia, nola lortu?

Beste adibide bat: Euskal Herrian, gizarte-bizitza *baserrien* (matriarkatua, maiorazkoa, lur komunalak...) inguruan antolatzen zen; gaur, berriz, hirietan (gizonezkoaren nagusitasuna, lurrik gabea, enpresen eremuak...). Bi eredu horien arteko sintesia, posible al da? Kontrajarritako bi egoeren arteko alde positiboak ikusiko al genituzke sintesian, egoera berri batean?

2. Bestalde, Marxek defendatzen zuen gizarte-errealitateak (errealitate ekonomikoak) **kontzientzia determinatzen** duela. Horrek esan nahi du, gizartearen eta ekonomiaren jakineko egoera batean, pentsamendua eta ideiak derrigorrez ezarriak izango direla.

Puntu eztabaidagarriak:

- Ez da sinplifikazio handiegia defendatzea gure ideologia batez ere egoera ekonomikoak baldintzatzen duela? Giza jokaeran badira zenbait alderdi kultural murriztu ezin direnak, **klase-borrokaren** eskema huts ez direnak.
 - Sistemaren kontrako mugimenduak («kontestatariorak») ez dira beti klaseen arteko borrokaren eskema bidez justifikatzen. Badira mugimendu indartsuak, ekologismoarekin edota identitate kultural eta biziera ezberdinekin zerikusia dutenak, eskema hori gainditzeko dutenak eta erdi-mailako klaseko kideak mugiarazten dituztenak. Askotan, gainera, planteatzen dituzten aldaketek ez dute eskatzen aurreko etapa historiko batekin haustura erradikalik, ezta etapa historiko berririk ere.
 - Aurrekoarekin lotuta, mugimendu erlijioso berritzaileak ere badaude; adibidez, Hegoamerikako «Hirugarren Mundurako apaizak». Hori horrela bada, erlijio edo sinesmen erlijioso guztiak alienatzaileak ote dira?
 - Marxen iritziz, **kapitalismoaren garapena** lortu eta gero etorriko litzateke **iraultza sozialista**; horregatik, kapitalismoa garatua zegoen lekuetan gertatuko zela aldaketa pentsatzen zuen; lurralde industrializatuetan, hau da, langileria klase indartsua zen lekuetan. Baina, gertatu, iraultza garrantzitsuenak kapitalismoa garatu gabe zegoen lurraldeetan gertatu izan dira: Tsarren Errusian edo Txina nekazarian edo ia industrializaziorik gabeko Kuban.
3. Sistema burgesean **historiaren subjektua** langilea zela defendatu zuen Marxek. Langileria zela aldaketa historikoaren protagonista, eta burgesia, berriz, klase pasiboa izango zela aldaketa horretan.

Puntu eztabaidagarriak:

- «*Gizaki Dimentsiobakarra*» liburuan Marcusek adierazten du gure gizartean ideologia ofiziala nagusitzen dela, eta dimentsio ideologiko ofizial eta bakar horretatik egiten ditugula analisi eta balorazio guztiak. Egoera hori gainditzeko gai den gizarte-sektore bakarra **unibertsitateko ikasleak** dira.

Ikasle horiek iraultzaren bidea hartuz gero, langileriaren modura, ez dute ezer galtzekorik. Gainera, eta hau garrantzizkoa da, ikasteko denbora dutenez, pribilegiozko egoeran daude errealitatea ezagutu, horretaz kontzientzia hartu, desalienatu, eta klase iraultzaile bihurtzeko.

Analisi horrek iraultzaren protagonismoa kendu egingo dio langileriari eta elite baten esku geratuko da. Ez al zen langileria, produkzio-harremanen arabera, klase iraultzailea?

- Borroka ideologikorik** gabe iraultza egin al liteke? Eta gaur egun, nortzuek atera dezakete aurrera horrelako borroka?
- Ondo zehazturiko **bi klasetan** bana daiteke gaur egungo gizartea?

4. **Estatuaren eginbearra** ote da burgesiaren aldeko tresna izatea? Edo, boterea duen edozeinen alde egotea?

Puntu eztabaidagarriak:

—Estatua burgesiaren administratzailea izanik, eta langileriak bere eskuetan hartzen badu boterea, langileriaren interesen alde egiteko izango litzateke. Baina egia esan, indar iraultzaileek Estatuaren kontrola hartu duten lurraldeetan, Sobiet Batasunean, esaterako, berehala sortu dira burokraziaren inguruan norberaren interesak defendatzen zituzten elitezko sektoreak.

—Ez da egia izango «**botereak beti galbideratzen du**», anarkismoak dioen bezala?

—Gainera, **globalizazioarekin**, zein da egitura esplotatzaileena? Estatuarena? NDFrena? Multinazionalena...? Gaur egun, beste kontraesan bat ikus dezakegu: nazio indartsuen eta behartsuen artekoa. Horretan, esplotazioa, bereziki, nazioen artekoa litzateke; lurralde txiroetako gaien salneurriak nazio aberatsek ezartzen baitituzte, txiroen zapalkuntza aberatsen garapena bihurtuz. Merkatu librearen aldarrikatzen dute, baina beste lurraldeak esplotatzeko, zeren, bitartean, nazio aberatsek beraien nekazaritza babestu egiten baitute.



5. Amaitzeko, arrazoia eman beharko al genieke gaurko sistemaren defendatzaileei, **sozialismoa sortzearen ezintasuna** sustatzen saiatzen direnei?

Sistemaren aldekoek erabiltzen dituzten argudioen artean hauek ditugu:

—Giza natura aldaezina da: berekoaia, lehiakorra; gizarte sozialistan izan behar diren anaitasuna, elkartasuna eta kooperazioarekin bateraezina.

—Idea «errealista» (edo fatalista) abiapuntu gisa: emantzipazio-egitasmo guztiei saihestezina zaie degradatzea errealizatzen direnean.

—«Pentsamendu ahularen» edo «postmodernoren» onarpena: existitzen denaren oinarri- edo arrazoi-ezak gauzak aldatzeko egitasmo edo borroka guztiak baliorik gabe uzten ditu.



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN: 978-84-457-3009-6



Salneurria: 14 €